Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

PLA 23-C/2018

| | | | |
|---|---|---|---|
| **KONTRATU MOTA:** | ZERBITZUAK | | |
| **PROZEDURA:** | IREKIA | | |
| **ARAU HARMONIZATUPEKO KONTRATUA** | | **BAI** X | **EZ** |
| **ERREKURTSO BEREZIPEKO KONTRATUA** | | **BAI** x | **EZ** |
| **LIZITAZIO ELEKTRONIKOA** | | | |

| | | |
|---|---|---|
| **Tramitazioa** | X **arrunta** | ☐ **premiazkoa** |
| **Tramitazio aurreratua** | ☐ | |

**Espediente kodea:**

**2-EM-28/2016/DO**

**BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

**EZAUGARRIEN TAULA**

| **1.- BOTERE ESLEITZAILEA** | |
|---|---|
| Administrazio kontratatzailea | Gipuzkoako Foru Aldundia |
| Kontratazio organoa | Diputatuen Kontseilua |
| Departamentua / Kudeaketa Zerbitzua | Bide Azpiegituretako Departamentua. |
| Departamentuko zuzendaritza /Zerbitzu kudeatzailea | Miramon Pasealekua 166,<br>20014 Donostia |
| Posta elektronikoa | bidekontratazioa@gipuzkoa.eus |
| Izapidetze unitatea | Bide Azpiegituretako Departamentuko Kontratazio Zerbitzua |
| Kontabilitate Bulegoa | Ogasun eta Finantza Saileko Finantza eta Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiaren Kontabilitate Zerbitzua |

| | |
|---|---|
| **2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:** | https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/perfil-contratante-nuevo |

| **3.- KONTRATUAREN XEDEA** | | |
|---|---|---|
| LAGUNTZA TEKNIKOA GI-638 ERREPIDEA HOBETZEKO ETA 1,200 ETA 3,610 KP-EN ARTEAN OINEZKOEN PASABIDEA PROIEKTUKO OBRETAN | | |
| **CPV kodea(k):** 71520000-9 | | |
| Loteen arabera lizitatzeko aukera | BAI | |
| | EZ | X |

| **4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (% 21eko BEZa BARNE)** | | |
|---|---|---|
| **Prezioa zehazteko sistema** | Banakako prezioak | |

| | | |
|---|---|---|
| | Kontratuaren zati bat oro harreko prezioan | |
| | Kontratu osoa oro harreko prezioan | X |
| **Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontua (BEZa barne)** | 670.993,40 € | |
| **Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuaren banakapena** | Zuzeneko eta zeharkako kostuak eta bere determinaziorako kalkulatutako gastu ebentualak ezaugarri tekniko berezien agiriko 3. eranskinean ezarritakoak izango dira (Justifikazio ekonomikoa) | |

**5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZik GABE)**

Kontuan hartu da kontratuaren balio zenbatetsia, SPKL Legearen 101. artikuluaren arabera kalkulatuta (nagusiki aurreikusitako goranzko aldaketak eta aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboetatik eratorritako lan kostuak), kontratu honetan nahiz egingo den publizitatean aplikatzeko esleipen-prozedura hautatzeko.

Zenbatekoa: 665.448 euro

| **6.- FINANTZAZIOA** | Portzentajea |
|---|---|
| Foru Aldundia | % 100 |

**7.- URTEROKOAK**

| EKITALDIA | **PARTIDAK** | **ZENBATEKOA** |
|---|---|---|
| 2019 | 5.0710.110.611.03.02 | 476.577,77 € |
| 2020 | 5.0710.110.611.03.02 | 194.415,63 € |

**8.- BETETZE / IRAUTE EPEA**

Epea kontratu hau osagarritzat duen obra kontratuaren berekoa izango da, gehi beharrezkoa den denbora prestatze eragiketak (hilabete) eta obrak likidatzeko eragiketak (2 hilabete) egiteko. 17,5 hilabete, obren esleipen epea 14,5 hilabetekoa bada. Epe hori txikiagoa bada, epea izango da obren esleipen epea gehi hiru hilabete, ezaugarri teknikoen agirian ezartzen den moduan kontatuta (hilabete prestatze eragiketentzat eta bi hilabete obra likidatzeko).

**9.- LUZAPENA**

| | |
|---|---|
| BAI | |
| EZ | X |

**10.- ORDAINTZEKO MODUA**

Kontratuan sartuta dauden laguntza teknikoko lanen ordainketa era honetan egingo da:

Laguntza Teknikoko lantaldearen oroharreko partida: hileroko ziurtagirien bidez ordainduko da, eskema hau jarraituz:

Oroharreko partidaren zenbatekoaren % 50 obren exekuzio epearen arabera ordainduko da, proportzionaltasunez.

Oroharreko partidaren zenbatekoaren % 50 obra-kontratuaren exekuzio-ziurtagiriaren arabera ordainduko da, proportzionaltasunez, indarrean dagoen esleipen aurrekontuarekiko. Inolaz ere ez dira ziurtatuko zenbateko negatiboak, nahiz eta, obra kontratuan izandako aldaketek eragindako esleipen aurrekontuan igoerak obra ziurtapenaren ehunekoa gutxitzea suposatzen duen; kasu horietan, ez da zenbatekorik ziurtatuko, obra ziurtapenaren ehunekoak, esleitutakoarenarekin alderatuz, lehenago ziurtatutako mailak gainditu artean.

Nolanahi ere, azkeneko obra ziurtapen arrunta egin ondoren, oroharreko partidaren gainerakoa ordainduko da, zenbatekoaren % 100 osatu arte, alde batera utzita esleitutakoarekiko ziurtatutako obraren

ehunekoa eta igarotako exekuzio epea.

Oroharreko partida hasierako fasean: zenbatekoa osotasunean ordainduko da obren zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta aurretiazko txostena entregatu ondoren.

Muntaketaren eta desmuntaketaren oroharreko partida: % 50 ordainduko da obrak hasten direnean, eta gainerako % 50 obren amaieran, Administrazioak lanak gauzatu direla egiaztatu bezain laster.

Oroharreko partida amaierako fasean: ordainduko da obren likidazio proiektua entregatu ondoren.

Azterlan berezien oroharreko partida: ordainduko da, hala badagokio, azterlan bereziak edo proiektu aldatuak entregatu ondoren; azterlan edo proiektu horiek egin dituzten bitartekoen dedikazioaren araberako zenbatekoa ziurtatuko da. Edonola ere, % 100 osatu arteko zenbatekoa ordainduko da obren likidazio proiektua entregatu ondoren.

**11.- BERME EPEA**

URTEBETE (1), lanak jasotzen direnetik aurrera.

**12.- HARRERA ETA ENTREGA / BETETZE LEKUA**

Bide Azpiegituretako Departamentuko Errepideen Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzua

**13.- ALDAERAK ONARTZEA**

| BAI | | EZ | **X** |
|---|---|---|---|

Eskakizunak, modalitateak eta aspektuak:

**14 - PREZIOEN BERRIKUSPENA**

| BAI | | EZ | **X** |
|---|---|---|---|

Berrikusteko formula:

**15.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN PROFESIONAL EDO TEKNIKOA**

**1) BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK ( SPKLaren 65. art.)**

Badagokio:

| | |
|---|---|
| BAI | |
| EZ | X |

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

**2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA:**

Enpresaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko, modu hau erabili behar da:

Negozioen urteko bolumena. Amaitutako azken hiru urteetan izandako bolumen handienaren zifrak lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 50 adinakoa izan beharko du gutxienez (277.270 € , BEZik gabe)

Urteko negozio bolumena egiaztatuko da onartutako eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuen bidez, baldin eta enpresaria erregistro horretan izena emanda badago; hala ez bada, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean aurkeztutako kontuen bidez egiaztatuko da. Merkataritza Erregistroan izena eman gabe dauden enpresari indibidualak, urteko negozio bolumena egiaztatzeko, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario liburuak eta urteko kontuen liburuak erabiliko dituzte.

**3) KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA**

Enpresaren kaudimen teknikoa eta profesionala egiaztatzeko, irizpide hauek erabili behar dira:

1.- Enpresak azken hiru urteetan gutxienez laguntza teknikoko edo obra zuzendaritzako lan bat egin izana egiaztatu behar du, azpiegitura linealeko obra batean (errepidea edo trenbidea), non errepideko edo trenbideko tunel berri bat zulatu den. Obren exekuzio aurrekontua 5.000.000 € (BEZik gabe) baino gehiagokoa izango da, edo laguntza teknikoko edo obra zuzendaritzako kontratuaren aurrekontua 275.000 € (BEZik gabe) baino gehiagokoa. Egikaritzen ari diren obren ziurtapenak onartuko dira, beti ere, aurrekontuen betetze maila zehaztutako zenbatekoen gainetik badago eta tunelaren zulatzea amaitu dela ziurtatzen bada.

Aurreko paragrafoan adierazitako lanak egin izana soilik egiaztatu behar da, organo eskudunak emandako ziurtagiri edo ikus-onetsien bidez, hartzailea sektore publikokoa denean edo hartzailea subjektu pribatua denean; kasu honetan subjektuak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Egiaztagirietan lanen zenbatekoa, datak, kokapena eta hartzailea publikoa edo pribatua den adierazi beharko da. Halaber, lanbideko arauen arabera egin direnetz zehaztuko da, eta ea ongi bukatu diren.

Enpresak halako lanen bat aldi baterako enpresa batasun baten barruan egin badu, enpresa batasunaren barnean zeukan partaidetzaren proportzioan kontatuko zaio egindako lanaren diru zenbatekoa, eta, hori jakiteko, partaidetza portzentajea adierazi behar du aurkezten duen dokumentazioan.

2.- Teknikarien taldean egongo dira ezaugarri teknikoen agiriko 16. atalean zehazten diren lanpostuak, gutxienez

**4) SAILKAPENA:**

-Derrigorrezkoa ☐ BAI ☒ EZ

- Lizitatzaileak, kaudimena egiaztatzeko, ondoko sailkapena ere erabili ahal izango du:

☐ BAI ☒ EZ

**5) INGURUMEN KUDEAKETARAKO ETA KALITATEAREN KUDEAKETARAKO ARAUAK BETETZEN DIRELAKO EGIAZTAPENA**

☐ BAI ☒ EZ

Lizitatzaileak ondoko ziurtagiri hauek aurkeztu beharko ditu:

**16.- BITARTEKOAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA**

**BAI** ☒ **Ez** ☐

| Zk. | LANBIDEA | KARGUA/LANA | ESPERIENTZIA (URTEAK) | DEDIKAZIOA (%) |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Errepide, Ubide eta Portuetako ingeniaria (1) (8) | Laguntza teknikoko lantaldeko zuzendaritza | 7 (3)(6) | 100 |
| 1 | Goi mailako masterra Laneko Arriskuen Prebentzioan (2) (8) | Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea | 5 (4) | 100 |
| 1 | Topografiako ingeniari teknikoa (1) (9) | Kontrol geometrikoa eta topografikoa | 5 (5) | 100 |
| 1 | Topografiako laguntzailea (9) | Kontrol geometrikoa eta topografikoa | 5 (5) | 100 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Errepide, Ubide eta Portuetako ingeniaria edo Geologian lizentziatua (1) (8) | Geologian eta geoteknian arduraduna | 7[(3)(7)] | 50 |
| 1 | Biologoa (1) (8) | Ingurumeneko arduraduna | 5[(5)] | 20 |
| 1 | Lan harremanetako graduatua (1) (8) | Gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko arduraduna | 5 | 50 |
| 1 | Obra zaintzailea, FP-2 edo antzerako formazioarekin (8) | Obraren zaintza dokumentatua | 5[(3)] | 100 |
| 1 | Administrari laguntzailea (10) | Txostenak, kopiak, planoak, etab. | 3 | 100 |
| 1 | Errepide, Ubide eta Portuetako ingeniaria edo geologoa (1) | Geoteknian aholkularitza aditua, hondeaketetan, lubetetan, lur-erauzketetan eta tuneletan | 20 | 20 |

1) Edo unibertsitate titulu baliokideak

2) Pertsona tituluduna izango da formazio hauetan: Herrilanetako Ingeniaritza Teknikoa; Bide, Ubide edo Portuetako Ingeniaritza, Arkitektura Teknikoa edo Goi Mailako Arkitektura (edo unibertsitate titulu baliokideak). Halaber, goi mailako masterra beharko du Laneko Arriskuen Prebentzioan.

(3) Egiaztatutako esperientzia espezifikoa izango da errepideko edo trenbideko azpiegitura linealeko obren exekuzioari edo exekuzioaren kontrolari dagokionez.

(4) Egiaztatutako esperientzia segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaile gisa izango da obrak egiten diren bitartean.

(5) Egiaztatutako esperientzia izango da edozein izaerako obren exekuzioan edo exekuzio kontrolean.

(6) Egiaztatu beharko du parte hartu duela errepideko edo trenbideko tunel bat, gutxienez, egiten edo exekuzio kontrolean.

(7) Egiaztatu beharko du parte hartu duela errepideko edo trenbideko tunel baten exekuzio kontrolean, gutxienez, , eta zuzenean aurrerapen paseen kontrola egin duela.

(8) Sei lanpostu horietatik gutxienez batek egiaztatu behar du euskarako C1 maila duela.

(9) Bi lanpostu horietatik gutxienez batek egiaztatu behar du euskarako C1 maila duela
(10) Egiaztatu behar du euskarako B2 maila duela gutxienez.

**BITARTEKO MATERIALAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA**

Ezaugarri teknikoen agiriko 2. eranskinean jasotako bitarteko materialak eta informatikoak atxikiko dira gutxienez. Hiru ibilgailu, behinik behin.

| **17.- AZPIKONTRATAZIOA** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| - Azpikontratatzea aurreikusten den kontratu zatia eskaintzan adierazteko obligazioa. Zenbatekoa, azkikontratistaren izena edo enpresa profila adieraziko dira. | BAI | **X** | EZ | |
| - Azpi-kontratisten aldeko zuzeneko ordainketak | BAI | | EZ | **X** |
| - Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoak | BAI | **X** | EZ | |
| Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoen deskribapena:<br>Laguntza teknikoko lantaldearen zuzendaritza | | | | |

**18.- BERMEAK**

Gipuzkoako Foru Aldundia | Diputación Foral de Gipuzkoa

| | | | |
|---|---|---|---|
| **BEHIN BEHINEKOA** | BAI | | Zenbatekoa: |
| | EZ | **X** | |
| **BEHIN BETIKOA** | BAI | **X** | Zenbatekoa: esleipen zenbatekoaren % 5, BEZik gabe |
| | EZ | | |
| **OSAGARRIA** | BAI | | Zenbatekoa: |
| | EZ | **X** | |

**19.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK**

**1) BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK BAI ☒ EZ ☐**

| Irizpideak | Ponderazioa |
|---|---|
| **Proiektuaren analisia**<br>Baloratuko dira zuzentasuna, azterlanaren xehetasun maila eta enpresa lizitatzaileek egingo duten proiektuaren analisi kontratuarekiko egokitasuna | **0 - 24 puntu** |
| • **Proiektuan sartutako lanen deskribapen orokorra (gehienez 4 orri, DIN A4, bi aldeetatik, 8 orrialde)** | 0 - 4 puntu |
| • **Ipitxarriko lur-erauzketa (gehienez 2 orri, DIN A4, bi aldeetatik (4 orrialde))** | 0 - 5 puntu |
| • **Alkoleako tunela:** | |
| **Hondeaketa eta ahoketak eustea (gehienez 2 orri, DIN A4, bi aldeetatik (4 orrialde))** | 0 - 3 puntu |
| **Tunela mehatze itxuran (gehienez 2 orri, DIN A4, bi aldeetatik (4 orrialde))** | 0 - 4 puntu |
| • **Egitura 1+400 (gehienez orri bat, DIN A4, bi aldeetatik (2 orrialde))** | 0 4 puntu |
| • **Egitura 1+800 (gehienez orri bat, DIN A4, bi aldeetatik (2 orrialde))** | 0 - 2 puntu |
| • **Egiturak 3+160 eta 3+240 (gehienez orri bat, DIN A4, bi aldeetatik (2 orrialde))** | 0 - 2 puntu |

Adierazi ezazu, hala badagokio, ebaluazioa nori dagokion:

☐ Aditu batzordea

☐ Organismo tekniko espezializatua: (identifikatu)

**2) FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK**

| | Irizpideak | Ponderazioa |
|---|---|---|
| 2.- | **Prezioa** | **0 – 49 puntu** |
| 3.- | **Eskatutakoa baino esperientzia handiagoa, kaudimen tekniko gisa** | **0 – 12 puntu** |
| 4.- | **Eskatutakoa baino euskararen ezagutza-maila altuagoa, kaudimen teknik gisa** | **0 - 6 puntu** |

| | | |
|---|---|---|
| 5.- | **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun irizpidea** | **0 - 4 puntu** |
| 6.- | **Hobekuntzak bitarteko materialei eta langileei dagokienez** | **0 - 5 puntu** |

- **Parametroak, balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko:**

Hasiera batean, modu ezohikoan baxu modura hartuko dira onartutako eskaintzetako prezio guztien batez besteko aritmetikoaren % 10 baino gehiagoan baxuagoak direnak, eta halakotzat deklaratzeko ustez hartan sartuta dauden enpresa lizitatzaile guztiei informazioa eskatuko zaie, eta baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

**2. PREZIOA**

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, jarraian adierazitako puntuek definitzen dute zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.

| | |
|---|---|
| Beherapen maximoa (BMAX) | Puntuazio maximoa irekieran (PMAXir) |
| Beherapen maximoaren eta batez besteko beherapenaren arteko beherapen distantziakidea (BBB+0,5 x (BMAX-BBB)) | PMAXir*(100-0,5 x BBB)/100 |
| Batez besteko beherapena (BBB) | P(BBB+0,5 x (BMAX-BBB)) x (100-0,1 x BBB)/100 |
| Batez besteko beherapenaren % 50 (0,50xBBB) | PBBB) x (100-BBB)/100 |
| Beherapena=0 | (Lizitazio prezioa) Puntuazio nulua< |

Formulak horiek aplikatzeko, beherapena (B) honela kalkulatuko da: Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontua ken eskaintza ekonomikoa, zati Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontua, ehunekotan adierazita.

P(BBB+0,5x(BMAX-BBB)) da beherapen ekidistantearen puntuazioa Beherapen Maximoren eta Beherapen Ertainaren artean, eta PBBB da beherapen ertaina.

BMAX izendatzen da irekierarekin lotutako gehienezko puntuazioa, bere gehienezko balioa BMAX eran emenda, eta BBB eta BMAX direlakoen arabera kalkulatzen da, horrela:

Beherapen maximoaren portzentajea, ken batez besteko beherapen portzentajea % 5 baino gutxiago edo berdina bada, (BMAX-BBB ≤5):

PMAXir=PMAXx(BMAX-BBB)/5

Beherapen maximo portzentajezkoa ken bataz besteko beherapena % 5a baino handiagoa bada (BMAX-BBB >5):

PMAXir=PMAX

Eskaintzako alderdi ekonomikoen azken balorazioa bigarren hamarrekoan biribilduko da.

**3. ESPERIENTZIA**

Baloratuko da laguntza teknikoko lantaldearen buruzagitzako nahiz geologian eta geoteknian arduradun lanpostuak betetzen dituzten pertsonen esperientzia handiagoa, esperientziako urte gehigarri bakoitzeko 0,75 puntu, gehienez 15 urteko esperientzia arte (8 urte gehiago, kaudimen teknikoa egiaztatzeko gutxieneko 7 urteez gain). Esperientziaren kalkulua unibertsitate tituluaren arabera egingo da, eskaintzak aurkezteko epearen amaieran; osatu gabeko urteak hilabeteen arabera borobilduko dira eta urte osoko puntuazioren arabera puntuatuko dira, proportzionaltasunez.

**4. EUSKARA**

Kaudimen teknikoko irizpidea izango da C1 euskara maila egiaztatzea, hauetako pertsona batek, gutxienez:

Laguntza teknikoko lantaldearen burua
Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea
Geologian eta geoteknian arduraduna
Ingurumeneko arduraduna
Exekuzio baldintza bereziak betetzeko arduraduna
Obraren zaintza dokumentatua

Adierazitako pertsonez gain, C1 maila duela egiaztatzen duen pertsona bakoitzeko puntu bat emango da, gehienez 5 puntu.

Puntu bat emango da administrari laguntzaile lanpostua betetzen duen pertsonak C1 maila egiaztatzen badu, kaudimen teknikoko irizpide gisa eskatutako B2 mailaren ordez.

**5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA**

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko lan desberdintasunak ekiditeko, erantzukizuneko lanpostuak emakumeek betetzen dituzten eskaintzak baloratuko dira.

Laguntza teknikoko lantaldeko buru emakume bat jartzea: 1,5 puntu
Geologian eta geoteknian arduradun emakume bat jartzea: puntu 1
Ingeniari tekniko topografo gisa emakume bat jartzea: puntu 1

0,5 puntu jasoko dituzte hau betetzen duten eskaintzek: exekuzio baldintza bereziak betetzeko, kontrolaren arduradunak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean, gutxienez, 150 orduko prestakuntza duela egiaztatzen duenean, organo ofizial batek ziurtatuta (unibertsitatea edo administrazio publikoa).

**6. HOBEKUNTZAK BITARTEKO MATERIALEI ETA LANGILEEI DAGOKIENEZ**

Hobekuntza hauek baloratuko dira, beti ere, dagokion konpromiso gutunean berariaz adierazten bada egindako eskaintza ekonomikoaren barne dagoela kostua:

- Dokumentuen kudeaketa sistema bat ezartzeko konpromisoa, kontratuan sortuko den dokumentazio guztia (txostenak, planoak, balorazioen zerrendak, entseguen emaitzak, proiektu aldatuak, etab.) artxibatzeko eta kudeatzeko.Horretarako, online aplikazio-informatikoa erabiliko da, eta sarbidea izango dute kontratuaren arduradunek eta Administrazioak izendatutako beste pertsona batzuek:2 puntu

- Pertsona bat kontratuaren eskuera jartzeko konpromisoa: Industria Ingeniaritza Teknikoan edo goragoko mailan formazioa duena (edo unibertsitate titulu baliokidea), hiru urteko esperientzia duena argiteria instalatzeko diseinuan eta exekuzioan, dedikazio osoz exekuzio fasean, eta eskatutakoaren arabera kontratuaren gainerakoan: 2 puntu

- Laguntza teknikoko lantaldearen buruzagitzako pertsonak tuneletan eta lur azpiko obretan master mailako formazioa (60 kreditu) duela egiaztatzea: puntu bat.

- **Irizpide espezifikoak, berdinketak desegiteko**

- Kontratuen esleipenean lehentasuna izango dute beren lantaldean desgaitasuna duten langileen kopurua % 2 gorakoa duten enpresek, betiere, proposamen horiek onenen berdinak badira esleipenaren oinarri modura baliagarri diren irizpideen ikuspegitik. Eskaintzarik onena egiten parean gelditu direnetatik lizitatzaile batek baino gehiagok egiaztatzen badu %2 desgaitu baino langile gehiagorekin lan harremana duela, orduan enpresako langile finkoen artean ezgaituen portzentaje handiena duenari emango zaio lehentasuna kontratuaren esleipenean. Hala ere berdinketa badago, prezio baxuena eskaini duen proposamena aukeratuko da; prezioa ere berdina bada, esleipena zozketaz erabakiko da.
Irizpide horiek aplikatze aldera lizitatzaileek egiaztatu egin beharko dituzte, hala badagokio, dagozkion lan-kontratuekin eta Gizarte Segurantzarako kotizazioa erakusteko dokumentuekin eta aurrez aipatutako irizpide sozialak egiaztatzeko zuzenbidez onartutako beste edozein dokumenturekin.

**AURKEZTUTAKO IDATZIETAN NAHITAEZ BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK (ALDE BATERA UTZITA GRAFIKOAK, ARGAZKIAK, DIAGRAMAK...) Aurkeztu ziren:**

Irizpide hauei dagokienez, aurkezten diren testu idatzi guztien erredakzioak ondoko parametroak bete beharko dituzte:

- Dokumentazioaren gehienezko luzera (azalak edo aurkibideak kontatzeke): (gehienez 40orri, DIN A4, bi aldeetatik, 80 orrialde), gehi 10 orri, DIN A3 alde bakarretik, planoak eta krokisak)

Gutxieneko marjinak:

1. Goikoa eta behekoa: 2,5 cm
2. Ezker-eskuinekoa: 3 cm

Letra mota eta neurria: Arial arrunta, tamaina 10 gutxienez
Lerroartea: bakuna

**20.- EXEKUZIOKO BESTE BALDINTZA BEREZIAK**

Kontratu honetan bete beharko dira lan arloko, gizarte-segurantza arloko eta lan-segurtasun eta osasun arloko lege, arau eta hitzarmenak eta, bereziki, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren azken testua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa; betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

Era berean, kontratu honetan bete beharko dira baldintza administratibo berezien agiriko 38.2 klausulak zehaztutako exekuzio baldintza bereziak.

**21.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK**

| BAI | X | EZ | |
|---|---|---|---|

Kontratazio organoak obra kontratua aldatzea onesten badu, non obren exekuzio epea handituko den, laguntza teknikoko zerbitzua ere aldatu egingo da, hau da, laguntza teknikoko lantaldearen oroharreko partidaren zenbatekoa handituko da aldaketak eragindako epe luzapenaren proportzioan. Laguntza teknikoko zerbitzu kontratuaren aldaketa ez da izango esleipen zenbatekoaren % 20 baino handiagoa, obren exekuzio epearen luzapenak prezioa igoarazi badezake ere.

**22.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK**

Kontratu honen funtsezko betebeharrak Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta baldintza agirian aurreikusitakoak dira.

**23.- ZEHAPENAK**

[X] BAI [ ] EZ

**24.- ASEGURUAK:**

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA: 670.993,40 €

**25.- LAN HARREMAN JAKIN BATZUETAKO SUBROGAZIOA**

Bagokio: [ ] BAI [X] EZ

**26.- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA**

Kontratua ez esleitu edo gauzatzeko edo prozedura bertan behera uzteko erabakiaren aurrean, kontratazio-organoak hala adostuta, enpresa lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie sortu zaizkien gastuen ondorioz, gehienez 1.000,00 euroko zenbatekora arte.

**27.- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK**

BAI ☐ EZ☒

## 28.- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK

## 29.- KONTRATAZIO MAHAIA

MAHAIBURUA: Bide Artapeneko eta Kudeaketako zerbitzuburua, Iñigo Zufiria Zatarain
MAHAIBURUORDEA ETA 1. BOKALA: Plangintza eta Ustiapen Unitateko burua, Jesús Angel Maguregui Arregui
2. BOKALA: Bide Azpiegituretako Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko Obra eta Proiektuetako Zuzendaritza eta Kontroleko zerbitzuburua, Germán Pozás Zubizarreta
3°. BOKALA: Elixabete Martinez Iruretagoiena, Bide Azpiegituren Departamentuko idazkari teknikoa.
4°. BOKALA: Ogasun eta Finantza Saileko Kontu-hartze eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria Hasiera batean ezinezkoa denez aipatutako Zerbitzuaren ordezkaria zein den jakitea, eskaintzak ireki aurretik kontratistaren profilean argitaratuko da Kontratazio Mahaiaren behin betiko osatzea.
IDAZKARIA: Kontratazioko zerbitzuburua, Miguel Fonseca de la Rosa.

Diputatuen Kontseiluaren 40-C/2018 Erabakiaz onartua.

Donostia, 2018ko uztailaren 24a

IDAZKARI TEKNIKOA

Elixabete Martinez Iruretagoiena

AURKIBIDEA


1. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK ........ 1
1.- KONTRATUAREN XEDEA ........ 1
2.- KONTRATUAREN BIDEZ ASETZEKO ADMINISTRAZIO ARLOKO PREMIAK ........ 1
3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ........ 1
4.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ........ 1
5.- KONTRATUAREN PREZIOA ........ 1
6.- KREDITUA EGOTEA ........ 2
7.- ZERBITZUA BETETZEKO EPEA ETA LEKUA ........ 2
8.- PREZIOEN BERRIKUSPENA ........ 2
9.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ........ 2
10.- ARLO FISKALEKO, INGURUMENEKO, EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNEKO, ENPLEGUAREN BABESERAKO, LAN-BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO ETA DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA ........ 2
11.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK 3
12.- ERREKURTSOAREN ARAUBIDEA ........ 3
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA ........ 4
13.- ESPEDIENTE MOTA ETA LIZITAZIO PROZEDURA ........ 4
14.- PERTSONA LIZITATZAILE NATURAL EDO JURIDIKOAK ........ 4
15.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA ........ 5
16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA ........ 5
17.- INFORMAZIOA LIZITATZAILEEI ........ 5
18.- PROPOSAMENEN EDUKIA ........ 5
19.- BAT ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”. ........ 5
20.- BI ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” ........ 7
21.- HIRU ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” ........ 7
22.- ALDAERAK ONARTZEA ........ 8
23.- PROPOSAMENAK AURKEZTEAREN ONDORIOAK ........ 8
24.- KONTRATAZIO MAHAIA ........ 9
25.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA ........ 9
25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak zabaltzea eta administrazio dokumentazioaren kalifikazioa ........ 9
25.2.- BI zenbakidun artxibo elektronikoak ireki eta aztertzea (soilik BI zenbakidun artxibo elektronikoa dagoenean) ........ 9
25.3.- HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak ireki eta aztertzea ........ 10
25.4.- KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTAK ........ 10
26.- KONTRATAZIO MAHAIAREN EGINTZEN EMAITZA IRAGARTZEA ETA LIZITATZAILE UKITUEI JAKINARAZTEA ........ 10
27.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK ........ 10
28.- ESKAINTZEN BALORAZIOA ........ 11
29.- ESKAINTZAK ARGITZEA ........ 11
30.- BALIO EZOHIKO MODUAN BAXUAK DITUZTEN ESKAINTZAK ........ 11
31.- PROZEDURAN ORDEZKATZEA ........ 11

**32.-ADMINISTRAZIOAK KONTRATUA EZ ESLEITU EDO EGITEKO ERABAKIA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA ATZERA BOTATZEA** ........ 11
**33.- ESLEIPENA** ........ 12
**33.1.- Eskaintzak eta esleipen-proposamenak sailkatzea.** ........ 12
**33.2.- Kalitate-prezio erlazio oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aldez aurretiko betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea** ........ 12
**33.3.- Behin betiko bermea.** ........ 15
**33.4.- Esleipena** ........ 15
**34. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA** ........ 16
**III. KAPITULUA- KONTRATUA EGIKARITZEA** ........ 16
**35. KONTRATUAREN ARDURADUNA** ........ 16
**36. -KONTRATISTAREN PERTSONA ORDEZTEA** ........ 17
**37. -KONTRATUA LAGATZEA** ........ 17
**38. - EXEKUZIOAREN BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK** ........ 18
**38.1.- Baldintza orokorrak.** ........ 18
**38.2.- Kontratua betetzeko baldintza bereziak** ........ 18
**38.2.1.- Lan eta gizarte arloko baldintza eta ingurumenaren babesaren arlokoak** ........ 18
**38.2.2.- Kontratuaren betetzeari atxikitako langileei buruzko baldintzak** ........ 19
**38.2.3.- Subrogazio kasuetako baldintzak** ........ 20
**38.2.4.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak** ........ 21
**38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak** ........ 21
**38.2.6.- Baldintzak azpikontratazioan** ........ 21
**38.2.7. Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak** ........ 22
**38.2.8.- Enpresa kontratistaren langileei buruzko baldintzak** ........ 23
**38.2.9.- Informazioaren segurtasunaren esparruko baldintzak** ........ 24
**38.3.- Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua** ........ 24
**38.4.-Baimen, lizentzia eta onarpenen kudeaketaren inguruko betebeharrak** ........ 25
**38.5.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak** ........ 25
**38.6.- Lan programa** ........ 25
**39. OBRA PROIEKTUAK PRESTATZEKO KONTRATUARI BURUZKO BEREZITASUNAK** 25
**39.1.- Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea.** ........ 25
**39.2.- Kalte-ordainak obren exekuzioan izandako desbideratzeengatik eta proiektuko akatsen edo errakuntzen erantzukizuna.** ........ 25
**40. - ZERBITZU KONTRATUEN BEREZITASUNAK, HERRITARRENTZAT ZUZENEKO PRESTAZIOAK DAKARTZATENEAN** ........ 26
**41. JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK** ........ 26
**42. BERANDUTZA ZIGORRAK ETA BESTE ZIGOR BATZUK** ........ 26
**43. KONTRATUAREN ALDAKETAK** ........ 27
**43.1.- Aurreikusitako aldaketak:** ........ 28
**43.2.-Aurreikusi gabeko aldaketak** ........ 28
**43.3.- Aldaketaren araubidea** ........ 28
**44. KONTRATISTARI EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK** ........ 28
**45. KONTRATUA ETETEA** ........ 29
**46. OBRAREN HARRERA ETA BERME EPEA** ........ 29
**46.1.- Harrera eta likidazioa** ........ 29
**46.2.- Berme epea** ........ 30
**46.3.- BERMEAREN ITZULKETA** ........ 30
**47. KONTRATUA BALIOGABETZEA** ........ 30
**I ERANSKINA LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK** ........ 32
**I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK** ........ 33

**II ERANSKINA KONTRATAZIORAKO EUROPAKO DOKUMENTU BAKARRA (DEUC) BETETZEKO JARRAIBIDEAK** ..... 34
**III ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA** ..... 36
**IV ERANSKINA BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA** ..... 38
**V ERANSKINA ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA** ..... 40
**VI ERANSKINA ADIERAZPEN EREDUA, KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA BETETZEARI BURUZKOA** ..... 41
**VII ERANSKINA KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN DOKUMENTUEN ETA DATUEN AITORPEN OSAGARRIAREN EREDUA** ..... 42
**VIII ERANSKINA ABAL EREDUA** ..... 43
**IX ERANSKINA ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA** ..... 44
**X ERANSKINA ESLEIPEN IRIZPIDEEN EBALUAZIO SISTEMAREN PROPOSAMENA ETA IZAERA SOZIALEKO BALDINTZA BEREZIAK** ..... 45

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

# 1. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea ezaugarrien taulako **3. atalean** deskribatutako zerbitzua da, betiere ezaugarri teknikoei buruzko baldintza-agirian ezarritako baldintzekin bat. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) Bigarren Liburuko I. tituluan aurreikusten dituen balizkoetan tramita daitezen aldaketak.

Atal horretan hala ezartzen denean sorten arabera burutuko da lizitazioa, bertan deskribatutako zehaztapen eta mugak betez, SPKL legeko 99. artikuluarekin bat etorriz.

2. - Kontratuen Hiztegi Arruntaren (KHA) nomenklaturari dagokion kodetzea ezaugarrien taulako **3. atalean** agertzen da.

## 2.- KONTRATUAREN BIDEZ ASETZEKO ADMINISTRAZIO ARLOKO PREMIAK

Kontratu honekin, baldintza teknikoen agirian deskribatzen diren beharrak aseko dira, bertan deskribatutako zerbitzuen bidez.

## 3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa ezaugarrien taulako **4. atalean** gehienez adierazten dena da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

2.- SPKaren 100.2 artikuluaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. atalean** adierazten dira kostu zuzenak, zeharkako kostuak eta lizitazioko oinarrizko aurrekontua zehazteko kontuan izan diren gainerako gastuak.

## 4.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKL Legeko 101. artikuluaren arabera kalkulatuta eta ezaugarrien taulako **5. atalean** jasoa, kontuan hartu da kontratu honetan nahiz egingo den publizitatean aplikatzeko esleipen-prozedura hautatzeko eta pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun-baldintzak ezartzeko, eta baita baliabideen araubide aplikagarria finkatzeko ere. Balio zenbatetsi horretan sartuko dira, ezaugarri taulako **9. eta 21. ataletan** adierazitako kontratu luzapen eta aldaketak, hurrenez hurren, baldin eta izango direla aurreikusten bada.

2.- SPKL Legeko 101.5. artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. atalean** kontratuko balio estimatua zehazteko erabilitako metodoa adierazten da.

## 5.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ondorioztatzen dena izango da eta BEZA zerga aparteko partida modura adieraziko da. Kontratuaren prezioan aplikagarri diren edozein motako tributuak, tasak eta kanonak sartuta daudela ulertuko da, eta baita plegu honetan barneratzen diren betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunak ordaintzeko sortzen diren gastu guztiak ere.

2.- SPKL Legeko 102.4. artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. atalean** kontratuko prezioa zehazteko erabilitako metodoa adierazten da.

3.- Prezioaren zehaztapena oroharreko prezioan egiten den kontratuetan, kontratuaren prezioa enpresa esleipendunak eskainiko du kontratuaren prezioa eta hura inoiz ez da lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik gorakoa izango.

4.- Osagaien edo prestazio unitateen unitate-prezioen arabera zehazten diren prezioak dituzten kontratuetan:

a) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehaztasunez definitzen denean, prezioa izango da: esleipendunak eskainitako unitate prezioa, bider unitate kopurua.

b) Xedea osatzen duten unitate kopurua zehaztasunez definitzen ez denean, prezioa izango da:

1. Esleipendunak eskainitakoa.

2. Kontratuaren aurrekontu maximo mugatzailea ezarriko da, baina aurrekontu honen gastu erreala Administrazioaren benetako beharrek baldintzatua egongo da, zeina ez baita egongo behartuta unitate kopuru jakin bat eskatzera edo aurrekontu osoa xahutzera.

5.- Ezaugarrien taulako **4. atalean** horrela adieraziz gero, eskaintza ekonomikoak onartuko dira, prezio partzialak emanda horietan lizitazioko oinarrizko aurrekontuan jasotzen diren prezio unitario partzialekiko igoera portzentaje batez; dena den, ateratzen den gehienezko prezioak ezingo du, inoiz, oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa gainditu.

**6.- KREDITUA EGOTEA**

1.- Badago behar adinako kreditu egokia, kontratua gauzatzeko kalkulatutako gehieneko gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontu-partiden kargura finantzatuko da eta ezaugarrien taulako **7. atalean** ezartzen diren urtealdiekin bat etorriz.

2. - Ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitakoarekin bat etorriz, SPKL Legeko 117.2 .artikuluan aurreikusitakoaren arabera, espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, kontratua esleitu ahal izateko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarria bete beharko da, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatze aldera.

**7.- ZERBITZUA BETETZEKO EPEA ETA LEKUA**

1.- Zerbitzua betetzeko epea ezaugarrien taulako **8. atalean** ageri dena da, edo, bestela, enpresa esleipendunak eskaintzen duena, eskaintzaileek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa dezaketen kasuan.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da baldin eta ezaugarrien taulako **9. atalak** aurreikusten badu. Luzapena halabeharrezkoa izango da kontratistarentzat Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29.2 artikuluari jarraikiz.

3.- Zerbitzuak toki jakin batean eman behar badira, ezaugarrien taulako **12. atalean** adieraziko da.

**8.- PREZIOEN BERRIKUSPENA**

1.- Berrikuspena beharrezkoa balitz, ezaugarrien taulako **14. atalean** adieraziko da, eta bertan jasoko da formula aplikagarria.

2.- Prezioak SPKL Legean (103. artikuluan eta hurrengoetan) ezarritako moduan berrikusiko dira.

**9.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

1.- Kontratu honi buruz kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko den informazioa ezaugarrien taulako **2. atalean** adierazten den helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

2.- Herri administrazioen kontratuak esleitzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

3.- Kontratatzailearen profilean, kontratua esleitzeko deialdiari buruzko informazioa emango da, klausula administratibo partikularren baldintza agiriekin eta, bidezkoa, bada, dokumentazio osagarriarekin batera.

4. Kontratuak erregulazio harmonizatupean daudenean, lizitazioa Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKL Legearen 135. artikuluari jarraiki

**10.- ARLO FISKALEKO, INGURUMENEKO, EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNEKO, ENPLEGUAREN BABESERAKO, LAN-BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO ETA DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Organismo hauetan lortu ahal izango da honelako gaiei buruz indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailean, eta gainerako zerga administrazioetan.
- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa, eta desgaitasunak dituzten pertsonak gizartean eta lan munduan txertatzea: Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE organismo autonomoan.
- Hizkuntza berdintasuna. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzan

- Ingurumena babestea: IHOBE sozietate publikoa.
- Datu pertsonalen babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzian.

**11.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

1.- Kontratu honek izaera administratiboa du, SPKLaren 25. artikuluaren arabera. Aldeak baldintza agiri honetan eta dagokion proiektuan jasotakoari espresuki lotuta gelditzen dira.

2.- Baldintza administratibo partikularren agiriak eta ezaugarri tekniko partikularren agiriak kontratu izaera dute, eta, beraz, esleipendunak sinatu beharko ditu, adostasun seinale gisa, kontratuaren formalizazio egintzan.

3.- Baldintza agirietan jaso gabe dauden alderdietan, kontratua honako hauen bidez araututa geldituko da: SPKL; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioetako Kontratuen Erregelamendu Orokorra (HAKEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onartu zena, aurrekoaren aurka ez doan guztian. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko mailan (zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legea) nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren mailan kontratazioa arautzeko ezarritako beste edozein xedapenek arautuko dute, baldin eta aplikagarri badira. Arau horiek SPKLaren xedapen indargabetzaileak eragin ez duen guztiari dagokionez aplikatuko dira.

4.- Nolanahi ere, aurretik aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLaren aurka ez doazen guztiak aplikatuko dira.

5.- Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

6.- Plegu honen eta kontratuko gainerako dokumentuen artean desadostasunik balego, plegu hau lehenetsiko da.

7.- Kontratuko klausulak, edozein modutan, hartako parte diren kontratuzko gainerako dokumentuak eta adostutako kontuaren egikaritzearen aplikagarri diren argibide edo araudiak ez ezagutzeak ez du esleipenduna salbuesten horiek betetzeko betebeharretik.

8.- SPKLaren 190. artikuluan aurreikusiarekin bat, kontratazio organoak du kontratu administratiboak interpretatzeko eta hauek betetzeko unean sortzen diren zalantzak erabakitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratuak alde bakarretik aldatu ahal izango ditu, eta horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKL Legeak eta berau garatzeko xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta baldintzetan eta aipatzen dituzten ondorioekin.

9.- Kontratua aplikatu edo interpretatzeko, gauzatzeko, aldatzeko, betetzeko edo ebaztezko sor daitezkeen auzibidezko kontuak, aurretiaz kontratistari entzunaldia eman ostean, SPKL Legearen 191. artikuluan eta HAKLAO Legearen 97. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz ebatziko dira, Foru Aldundiko eskumeneko organoen eskutik eta horien akordioak berehala betearaztekoak izango dira.

10.- Interesdunak eskatuta abiatutako prozeduretan, berariaz besterik ezartzen ez diren kasuetarako, eta zenbatekoen erreklamazioa, administrazioaren eskumenak betetzea edo administrazio-kontratua gauzatu, bete edo eteteari dagokion beste edozein alderdi aipagai edo xede izanik, behin ebazpenerako aurreikusitako epea igaro ostean, hura jakinarazi ez bada, interesdunak bere eskaera ezetsitzat jo ahalko du administrazio-isiltasunagatik, ebazteko betebeharrak irautearen kalterik gabe.

**12.- ERREKURTSOAREN ARAUBIDEA**

1- Plegu hau eta baldintza teknikoen plegua errekurritu ahal izango dira hautaz SPKL Legearen 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso bereziaren bidez, baldin eta kontratuaren balio estimatua 100.000 eurotik gorakoa bada.

2.- Jarduketa hauen aurka ere errekurtsoa jarri ahal izango da:

a) Lizitazio-iragarkiak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratuzko gainerako dokumentuak.
b) Prozeduran egindako tramiteko egintzak, baldin eta tramiteko egintza horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka zerbait erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitu ezina eragiten badute edota defendatu ezina edo eskubide edo interes legitimoentzako kalte konponezinen bat badakarte. Edozein kasutan, aurreko inguruabarrak ematen direla ulertuko da hautagai edo lizitatzaileak onartu ala ez onartzea, edo eskaintzak onartu edo baztertzea adosteko mahaiaren

edo kontratazio-organoaren egintzetan, SPKL Legearen 149. artikulua aplikatuz modu ezohikoan baxuak izateagatik baztertzen diren eskaintzak barne.

c) Esleipen-akordioak.
d) SPKL Legearen 204. eta 205. artikuluetan ezarritako ez-betetzeetan oinarritutako aldaketak, aldaketak esleipen berri bat ekarri behar zuela ulertzeagatik.

SPKLaren 51. artikuluan xedatuarekin bat, kontratazio organoaren erregistroan, Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegiarenean, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan ezartzen dituen lekuetan aurkeztu beharko da errekurtsoa, 15 egun balioduneko epean, SPKLaren 50.1.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, errekurtsoaren oinarria SPKLaren 39. artikuluko 2. apartatuaren c), d), e) edo f) letran adierazitako deuseztasun arrazoietako bat denean, SPKLaren 50.2 artikuluan jasotako aurkezpen epeei begiratuko zaie.

Aukeran izango da, halaber, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzea Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko ekainaren 13ko 29/1998 Legean jasotakoaren arabera.

3.- Bestelako kontratuen kasuan, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, sektore publikoko araubide juridikoari dagokionez indarrean dagoen erregulazioak, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak aurreikusten dituzten errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.

## II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

### 13.- ESPEDIENTE MOTA ETA LIZITAZIO PROZEDURA

1.- Kontratazio-espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozeduraren eta izapidearen arabera burutuko da.

Aldagaiak onartzen badira, lizitatzaileek aukera izango dute alternatibak eskaintzeko ezaugarrien taulako **13. atalean** ezarritako moduan eta baldintza tekniko berezien pleguan ezarri eta atal horretan laburtutako betekizun, modalitate eta ezaugarriekin.

2.- Espedientea premiazko izapidetzeak berekin ekarriko du haren lizitazio, esleipen eta formalizaziorako ezarritako epeak murriztea, SPKL Legearen 119. artikuluan ezarritako arauei eta horiekin bat datozenei jarraiki.

### 14.- PERTSONA LIZITATZAILE NATURAL EDO JURIDIKOAK

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte.

Araudi aplikagarriak ezartzen duela-eta esleitzaileari eskatzen zaionean bere erakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait baldintza betetzea esleipen prozeduran parte hartu ahal izateko, alderdi horiek guztiak prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu lizitatzaileak.

2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzaileek ez dute izango Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratatzeko debekurik ez dute izango, ezta ere, kontratua esleitzeko garaian.

3.- Halaber, lizitatzaileek kontratuaren xede den prestazioa burutzeko, hala dagokionean, eska daitekeen gaitasun profesionala edo enpresa mailakoa izan beharko dute.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Era berean, Administrazioak aldi baterako eratzen diren enpresa batasunekin kontratuak egin ditzake, eta ez da beharrezkoa kontratua esleitu zaion arte enpresa elkartearen eskritura egina egotea.

Aldi baterako enpresa elkarteei dagokienez, haien osaera aldatzen denean eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa kasuetan, SPKLaren 69. artikuluan eta ondorengoetan

jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer zirkunstantzia gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.

6.- Batasuneko enpresei edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuei eta Batasunekoak ez diren enpresei dagokienez, SPKL Legearen 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

### 15.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

1.- SPKL Legearen 106. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ezohiko kasuan, interes publikoko arrazoiak direla medio eta espedientean justifikatuta, kontratu honi dagokionez behin-behineko berme bat eratzea eskatzen bada, haren zenbatekoa ezaugarrien taulako **18. atalean** agertzen dena izango da.

2.- Bermeen formari eta baldintzei dagokienez, SPKLaren 106. eta 108. artikuluetan jasotakoa beteko da, bai eta HAKLEOren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotakoa ere.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatzaileei kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie.

### 16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Proposamenak lizitazio elektronikoko plataformaren (www.contratacion.euskadi.eus) bidez aurkeztuko dira kontratatzailearen profilean eta Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean (EBEO) erregulazio harmonizatupean dauden kontratuetarako argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan.

2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko da baldintza-agiri honetako I. ERANSKINEAN jasoa.

3.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira baldintza-agiri honetako 19., 20. eta 21. klausuletan adierazitako atalak, horietan adierazten baita BAT,BI eta HIRU artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu-edukia.

4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

### 17.- INFORMAZIOA LIZITATZAILEEI

1.- SPKLaren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduen eskaintzak aurkezteko finkatutako mugako data baino 6 egun natural lehenago, betiere informazio eskaera mugako data hura baino, gutxienez, 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **1. atalean** aurreikusten den helbide elektronikora zuzenduko da.

2.- Presakotzat jo diren espedienteen kasuan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretiko gehienezko epe hori 4 egun naturalekoa izango da, erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan.

3.- Baldintza agiriez edo gainerako dokumentazioaz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

### 18.- PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko dira, horren ordezkaritza duen lizitatzailearen edo pertsonaren eskutik.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

### 19.- BAT ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”.

1.- “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA” izeneko artxibo elektronikoan sartu egin beharko dira ondoren zerrendatzen diren dokumentuak, horiek guztiak jasotzen dituen aurkibidearekin batera.

a) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).**SPKLaren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, **II. eranskinean** jasotako jarraibideekin bat beterik, eta lizitatzaileak edo honen ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.

Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

Kontratuaren gaia loteka zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimenari buruzko baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote bakoitzeko edo lote talde bakoitzeko.

b) **Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio.**Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKL Legearen 69. artikulua eta HAKLAO Legearen 24. artikulua).Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Kasu horietan, enpresa bakoitzak EKAB agiri bat aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako III. eranskinean jasotzen da Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) **Kontatua egikaritzean bitarteko pertsonal eta materialak atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena ezaugarrien taulako** 16. atalean adierazten diren profil eta zehaztapenekin.Eredua gaineratzen da plegu honetara **IV. eranskinean**.

d) **Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko berariazko adierazpena,** bera parte den enpresa taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak hartzen dituena bera, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan.Adierazpen hori aurkeztu beharko da, baldin eta ezaugarrien taulako **19. atalean** proposamen bati baxuegi irizteko parametroak ezartzen badira.Inongo enpresa taldetakoa ez bada, adierazpenak horixe adierazi beharko du. Eredua gaineratzen da plegu honetara **V. eranskinean**.

e) **Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatzeko jokabide kodea eta erakundearen zuzentasun esparrua betetzeari buruzko adierazpena.**Adierazpen hori bat etorri beharko da plegu honetara **VI. eranskinean** atxikitzen den ereduarekin.

f) **Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena.**Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak.Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gaininprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan.Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzial jo daitezke, horiek hirugarren pertsona edo erakunde batzuei zabaltzea lizitatzailearen interes komertzial zilegien kontrakoa izan daitekeenean edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean. Adierazpen hori aurkeztu ezean, izaera hori duen dokumentu edo daturik ez dagoela ulertuko da. Eredua gaineratzen da plegu honetara **VII. eranskinean**.

g) **Behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentua, hala badagokio.**Behin-behineko bermea eskatzen bada, hau horrela ordainduko da:

- Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen ES71 2095 0611 09 1062462774 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.
- Kontratazio organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean (ikusi abalaren eredua ).

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, behin-behineko bermeak parte hartzen duten enpresa batekin edo ugarirekin eratu ahal izango dira, betiere, guztien artean ezaugarrien taulako **18. atalean** eskatzen den zenbatekoa lortzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak bermatzen baditu solidarioki.

h) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak.** Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.

Espainiakoak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoak:

– **Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena,** kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLaren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu ez duten Estatuetako enpresek gainera honakoak aurkeztu beharko dituzte:

- **Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena,** horretan erasota lagaz, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohiz aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan.

- SPKL Legearen 68. artikuluan aipatzen den elkarrekikotasun txostena, erregulazio harmonizatupeko kontratuetan izan ezik, azken kasu horretan Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiak Merkataritzako Mundu Erakundeko Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren Estatu sinatzailearen izaerari buruz igorritako txostenarekin ordezkatuko da.

2.- Era berean, bi zenbakiko artxibo elektronikoan agiri honetako I. eranskinaren gehigarri gisa emandako adierazpen eredua sartu beharko da

3.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz.

Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko. Epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, betekizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Betekizuna ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

### 20.- BI ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Ezaugarrien taulako **19. atalean** aurretik eta balio-judizio baten bitartez baloratu beharreko esleipen irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileak BAT zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa.

2.- Artxibo elektroniko honetan ez da, inolaz ere, HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan behar duen dokumenturik sartuko.

### 21.- HIRU ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"

1.- "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.

2.- Proposamenak IX. ERANSKINEAN jasotako eredura egokitu beharko dira, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzaileen eskaintza

ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.

Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko dira.

3.- Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLaren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz jasotakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkartea eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago ere. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.

5.- Proposamena enpresa elkarte batek egina denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.

6.- Ezaugarrien taulako **13. atalak** aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, erreferentzia gisa oinarria hartzen duen eskaintza ekonomikoaz gain eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du artxibo honek aldaera bakoitzeko. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa, era berean, baldintzen plegu honetako **IX ERANSKINEAN** ageri den ereduaren arabera formulatuko da, eta atal horretan adierazten diren kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

**22.- ALDAERAK ONARTZEA**

1.- Aldaerak onartzen diren kasuan, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren xedera begira eskaintzeari egoki irizten dion adina aukera jaso ahal izango du, ezaugarri tekniko partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, ezaugarrien taulako **13. atalean** laburtzen baitira.Aldaerak ezaugarrien taulako atal horretan bertan ezartzen den moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioko oinarrizko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da enpresa lizitatzaileentzat haiei eskatutako oinarrizko zerbitzuari bakarrik eta literalki dagokion proposamen bat aurkeztea. Betiere, prestazioa betetzeko epea eta prezioa, biak, baldintza agiri honen hasierako ezaugarrien taulan jasotakoaren berdinak edo txikiagoak izan behar dira eta zehatz-mehatz bat etorriko dira lizitatzaileak aurkezten duen lan egitarauan adierazitakoekin.

**23.- PROPOSAMENAK AURKEZTEAREN ONDORIOAK**

1.- Enpresa lizitatzailearen aldetik proposamena aurkezteak berekin dakar plegu honetako eta baldintza teknikoen pleguko klausulak baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik gabe, eta baita kontratazio mahai edo organoak Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide baten operadoreen ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko baimena ere.

Agiriak ez onartzeak nahitaez dakar eskaintza baztertzea.

2.- Lizitatzaileek ezingo dute beren proposamena atzera bota 15 egun naturaleko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, esleipenduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratuaren esleipenerako beste irizpide batzuk hartu direnean kontuan, SPKL Legearen 158.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Epe hori 15 egun baliodunetan luzatuko da SPKL Legearen 149. artikuluan, ezohiko moduan baxuak direnen eskaintzei buruzkoan, aipatzen diren izapideak jarraitzea ezinbestekoa denean.

3.- Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, doloz, erruz edo zabarkeriaz jardunez gero, lizitatzaileak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLaren 71.2 artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, behin-behineko bermea konfiskatuta geratuko da, SPKLaren 106.1 artikuluarekin bat, horrelako bermerik eskatu baldin bada.

**24.- KONTRATAZIO MAHAIA**

1.- Kontratazio mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskumenduna, eta SPKLaren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, gainera, mahaiaren osaketa eta eginkizunak garatzen dituen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan jasotakoari jarraikiz.

2.- Mahaiaren osaketa ezaugarrien taulako **29. atalean** aurreikusita dago. Hori kontratatzailearen profilaren bitartez argitaratuko da lizitazioaren iragarkiarekin edo, bestela, beti mahaia bera eratu aurretik aipatutako profileko iragarki espezifiko batekin.

3.- Kargua hutsik badago, edo titularra gaixorik edo kanpoan badago, arrazoi justifikaturen bat izanik, ordezkapen hauek ezartzen dira kontratazio mahaiko kideentzat:

- Mahaiburua: hartako titularra kide iraunkorrek ordezkatuko dute plegu honetako ezaugarrien taulan edo, hala badagokio, kontratatzailearen profilean adierazten den hurrenkeran.
- Bokalak: mahaikideak, oro har, titularrak atxikita dauden zerbitzu edo kudeaketa-unitateei atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte edo, bestela, mahaikideak berak mendeko diren zuzendaritzako beste zerbitzu batzuei atxikitakoek, eta mahaiburu kargua duenak izendatuko ditu.
- Kontu-hartze eta Auditoretza Zerbitzura atxikitako bokalaren kasuan, zerbitzu horretako funtzionario batek ordezkatuko du.
- Idazkaritza: kontratua kudeatzen duen departamentuari atxikitako eta mahaiburu kargua duenak izendatutako funtzionario batek ordezkatuko du.

**25.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA**

**25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak zabaltzea eta administrazio dokumentazioaren kalifikazioa**

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek BAT zenbakiko artxibo elektronikoan garaiz eta behar moduan aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentu aurkeztuan, alde interesdunei emango die aditzera, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango dio mahaiak lizitatzaileari, hori aurkezteko 5 egun naturaleko epea ematearekin batera.

2.- Interesdunei jakinarazpen elektronikoz emango zaie aditzera akatsa edo hutsa ikusi dela.

3.- Azkenik, kontratazio mahaiak lizitaziorako onartuak izan diren lizitatzaileak eta ukatuak izan direnak zein ziren zehaztuko du, ukatze horren arrazoiak adieraziz, eta dagokion aktan azalduko du.

**25.2.- BI zenbakidun artxibo elektronikoak ireki eta aztertzea (soilik BI zenbakidun artxibo elektronikoa dagoenean)**

1.- Haien aurkezpena nahitaezkoa denean, “BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenarekin identifikatutako BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekiko dira, horien edukia ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzearren.

2.- Ekitaldi hori hasteko, mahaiak pronuntziamendu espresua egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

3.- Ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskaintza formalki zuzentzea eskatuko zaie, eduki materiala aldatzeke baina. Eskakizun horri erantzun ezean, prozeduratik kanpo geratuko dira Kontratazio Mahaiaren Ebazpenaz, eta hark lizitatzaileari jakinaraziko dio.

4.- Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zenbakidun artxibo elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa) sartzen dutenak.

### 25.3.- HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak ireki eta aztertzea

1.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira eta, kontratatzailearen profileko deialdian horrela azaltzen bada, zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia, kasuan kasuko deialdian adierazten den estekaren bitartez.

2.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren hasieran –BI zenbakiko artxibo elektronikorik ez dagoenean–, mahaiak berariazko pronuntziamendua egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

3.- Balio-judizio bitartez ebaluatzeko irizpiderik baden kasuan, ebaluazio horren emaitza ekitaldi honetan adieraziko da.

4.- Ondoren, kontratazio mahaiak ireki egingo ditu onartutako lizitatzaileek aurkeztutako HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak, “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

5.- Artxibo elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.

6.- Edonola ere, irizpide horien ebaluazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioaren balorazioaren ondotikoa izango da, beti.

### 25.4.- KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTAK

Aurreko apartatuen arabera jardundako guztia erasota lagako da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.

## 26.- KONTRATAZIO MAHAIAREN EGINTZEN EMAITZA IRAGARTZEA ETA LIZITATZAILE UKITUEI JAKINARAZTEA

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaile ukituei.

2.- Lizitatzaile bat kanporatzeko egintza ekitaldi publikoan bertan jakinarazi ahalko zaio lizitatzaile horri, ahal balitz, egintza horretan dagokion enpresa ordezkatzen duen hura bertan izateagatik edo, hura ez balego, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazioaren Jardunbide Erkidearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako prozeduren arabera.

3.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

## 27.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

1.- Kontratua esleitzeko nahiz haren haztapena kontuan hartzeko irizpideak, oinarrizko eskaintzan nahiz, hala badagokio, aldaeretan aplikatzekoak, lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako **19. atalean** ezarritakoak izango dira.

2.- Ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko honelako proposamenak: formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko atal bakoitzerako, baldintza-agiri honetan ezarritako gehieneko luze-laburra gainditzen dutenak (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe). Gehieneko luze-laburra gaindituz gero, edukia baloratuko da onartutako gehieneko orri kopurura arte.

3.- Enpresa Lizitatzaileren batek ez badu aurkezten formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

4.- Era berean, ez dira baloratuko, dena delako irizpideari dagokionez, baldintza-agiri honen karatulan esleipen irizpideei lotutako testu idatzietako paperaren tamainari, marjinei, letra motari eta lerroarteari

buruz (alde batera utzita grafikoak, diagramak…) jarritako parametroetako edozeini kasu egin gabe aurkeztutako proposamen guztiak. Halere, parametro horiei kasu ez egiteak ez du berekin ekarriko haiek esleipen prozesutik kanpo gelditzea.

**28.- ESKAINTZEN BALORAZIOA**

1.- Bere zereginak betetze aldera, mahaiak egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eska ditzake, SPKL Legearen 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertuak izango dira.

3.- Ezaugarrien taulako **19. ataleko** irizpideen kasuan, balio-judizioaren mendeko balorazioa dutenak, haztapen osoaren 50 % baino gehiago direnean, prestakuntza egokia duen aditu batzorde batek egingo du BI zenbakidun gutun-azal edo artxibo elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa, edo organismo tekniko espezializatu batek, berariaz adieraziko baita ezaugarrien taulako atal aipatuan, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko. Ezaugarrien taulako atal horretan adituen batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak balioesteko irizpide zehatzak, balioespena egiteko duten epea eta balioespena kuantifikatzeko gehienezko edo gutxieneko mugak adieraziko dira.

**29.- ESKAINTZAK ARGITZEA**

Kontratazio organoak edo kontratazko mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko azalpenak emateko edo, baleude, idazketan hautemandako akats material nabarmenak zuzentzeko eska diezaioke lizitatzaileari, betiere, tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta eskaintzako xehetasunak aldatzeko aukerarik izan gabe. Horren guztiorren berri espedientean jaso beharko da dokumentu bidez (SPKL Legearen 95. artikulua).

**30.- BALIO EZOHIKO MODUAN BAXUAK DITUZTEN ESKAINTZAK**

1.- Kontratazio organoak parametro objektiboak ezarri ahal izango ditu, ezaugarri taularen **19. atalean**, zeinen arabera ulertuko baita proposamena ezin dela bete ezohiko moduan baxua delako.
2.- Anormaltasun presuntziopean dagokeen proposamen bat identifikatzen denean, kontratazio mahaiak –edo, bestela, kontratazio organoak– lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die eskaintza ez-ohiko edo anormaltzat definitzea eragin duten proposameneko parametroak arrazoi eta zehatz justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLaren 4. artikuluko 6 149 bitarteko apartatuetan aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

**31.- PROZEDURAN ORDEZKATZEA**

1.- Prozedura izapidetzen den bitartean, eta kontratua burutu baino lehenago, enpresaren ondarea edo jardueraren adar bat beste batenarekin edo batzuenarekin batu delako, edo zatitu delako, edo eskualdatu delako, prozeduran enpresa lizitatzaile edo hautagaiaren ondorengo izango dira sozietate xurgatzaileak, bat-egitetik sortu direnak, zatiketaren onuradun izan direnak, edo ondarea edo dena delako jarduera-adarra eskuratu dutenak, betiere, horretarako gaitasuna izanik, kontratatzeko debekurik ez duela eta kaudimena eta gaitasuna nahiz sailkapena badituela egiaztatzen badu, esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula zehatzen pleguan eskatutako baldintzak beteta.

**32.-ADMINISTRAZIOAK KONTRATUA EZ ESLEITU EDO EGITEKO ERABAKIA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA ATZERA BOTATZEA**

1.- Kontratua ez esleitu edo egiteko erabakia eta esleipen-prozedura SPKL Legearen 152. artikuluan adierazitako moduan esleipen-prozedura atzera botatzekoa kontratazio-organoak adostu ahal izango ditu kontratua formalizatu aurretik, lizitatzaileei jakinaraziz eta, era berean, Europar Batzordeari horren berri emanez, kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean iragarri denean.

2.- Kasu bietan, hautagai egokiei edo lizitatzaileei ordaina eman beharko zaie, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulako **26. atalak** kasuan-kasuan zehazten duen kopurukoa.

**33.- ESLEIPENA**

**33.1.- Eskaintzak eta esleipen-proposamenak sailkatzea**

1.- Behin eskaintzak baloratu ondoren, aktarekin batera dagokion balorazioa eta kontratua esleitzeko proposamena bidaliko dizkio kontratazio mahaiak kontratazio organoari. Proposamenean, ezaugarrien taulako **19. atalean** jasotako irizpideen aplikazioz bakoitzari emandako puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeraz antolatuta agertuko dira eskaintzak, kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuta.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du eskubidetik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta, beraz, hark ez du eskubiderik eskuratuko Administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatzen ez den arte.

Kontuan hartutako irizpide bakarra prezioa denean, ulertuko da eskaintzarik onena preziorik txikiena jasotzen duena dela.

2.- Ezaugarrien taulako 19. atalean aurreikusi ez denean bi lizitatzaile edo gehiagoren arteko guztirako puntuazioko berdinketak desegiteko irizpiderik, SPKLaren 147.2 artikuluan aurreikusten diren irizpide sozialak dagokien hurrenkerari jarraikiz aplikatuta desegingo da berdinketa.

**33.2.- Kalitate-prezio erlazio oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aldez aurretiko betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea**

1.- Kontratazio-organok proposamena onartu ostean, dagozkion zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailea deituko dute, 10 egun balioduneko epean, eskabidea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua esleitzeko ezinbesteko modura zerrendatzen den dokumentazioa aurkez dezan.

Honatx dokumentazio hori:

a) **Jarduteko ahalmena eta bere jardute-eremua egiaztatzeko dokumentuak.** Enpresa pertsona juridiko bat bada, izaera eraketa-eskritura aurkeztuz edo, hala badagokio, aldatzeko eskritura aurkeztuz egiaztatuko da, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, betekizun hori eska daitekeenean merkataritzako legedia aplikagarriaren arabera. Erregistroan inskribatuta egote hori eskagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estutuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

   Pertsona juridikoei kontratuak esleituko zaizkie, bakar bakarrik, kontratuen prestazioak sartuta badaude aipatutako pertsona juridikoek, beren estatutu edo sorrera arauen arabera, berezko dituzten helburu, xede edo jarduera eremuen barruan. Hori helarazitako dokumentazioan egiaztaturik geratu beharko da.

   Enpresa pertsona bakarrarena denean, Nortasun Agiria edo haren ordez balio duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.

b) **Hala dagokionean, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.** Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.

   Ordezkari horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion erakunde administratiboak konpultsatua

   Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   Ez da beharrezkoa izango ordezkaritzaren ahalordea egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea ordezkaritza hori Gipuzkoako Foru Aldundian inskribatuta dagoenean, legezko ordezkarien zentsuan, edota izapide horretarako askietsitako ahalordea duen ordezkaritza boluntarioaren zentsu korporatiboan.

c) **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala.** Eskatutako sailkapena edo, hala badagokio, bere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzea SPKL Legearen 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako bideetako bat erabiliz, betiere, bide horiek lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako **15. atalean** zehaztuz.

   Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, horien kaudimena zehazte aldera, hartako kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira (HAKLAO Legearen 24.1. artikulua).

   Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalak diren lizitatzaileek, Espainian sailkatu gabe daudenean, sailkapenaren ordez aurkeztu beharko dute beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere SPKL Legearen 87. eta 88. artikuluetan jasotakoaren arabera eta kontratazio organoak ezaugarrien taulako 15. atalean ezarritako bitartekoak erabilita.

   Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek kontratatzeko baimena duten enpresariei buruz ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek luzatutako inskripzio ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria luzatzen duen estatu kide batean establezimendua duten enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela haietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez.

   Era berean, berdin uste izango da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero, baldin eta horiek betetzen badituzte lizitatzaileak establezimendua duen estatu kideko legediaren arabera luzatutako ziurtapen arau europarrak.

   Aurreko atalean aipatutako dokumentuetan enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea eta sailkapena lortzea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dira.

d) **Kontratuaren xede den prestazioa emateko enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzea.** Kontratatzeko gaitasunerako baldintzatzat legez eskagarria baldin bada, kontratu honen xede den prestazioa emateko behar den enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

e) **Kaudimena kanpo bitartekoak erabiliz egiaztatzeko** (SPKL Legearen 75. artikulua), frogatu egin beharko da egiaz badirela kontratua betetzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, beste erakunde horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko baita.

   Lizitatzaileak, kontratua betetzeko, bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berak erabiliko ditu. Aurreikusi ezindako arrazoiak sortu direla eta horiek ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere administrazioak baimenduta.

f) **Lizitatzaileak azpikontratatzeko asmo duen kontratu zatiari buruzko adierazpena.** Ezaugarrien taulako 17. atalak eskatzen duenean, lizitatzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duten, azpikontratazioaren diru zenbatekoa ehuneko gisa adierazita, lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta (SPKLaren 215. artikulua).

g) Ingurumena kudeatzeko eta kalitatea bermatzeko arauak betetzea. Ezaugarrien taulako **15. atalean** horrela aurreikusten bada, han adierazten diren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak.

h) **Zerga betekizunetan zein Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak edo kontratuaren organo kudeatzaileari emandako baimena,** hain zuzen ere azken honek jaso ditzan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak, zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzkoak.

i) Berdintasun plan bat baduela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, 250 langiletik gorako enpresa denean.

j) **Langile finko desgaituen kopuruari buruzko adierazpena aurkeztu beharko du.** 50 langile edo gehiago dituzten enpresek egiaztagiriak aurkeztuko dituzte, ziurtatzeko betetzen dutela % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostuen kuota betetzen dutela, edo modu osagarrian edo subsidiarioki, betetzen dituztela har ditzaketen neurri alternatiboak, kontuan hartuta 1/2013 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haiek gizarteratzearen lege orokorraren testu bategina onartzekoa, nahiz lege hori garatzen duen araudia. 2014ko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauan jasotako irizpideak, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoak.

k) **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren mendeko jarduerak egiten direnean:** urteko ekitaldiko alta, edo azken erreziboa, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala badagokio, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

l) Hala badagokio, bidezkoa den **behin betiko bermea** honela gordailatu ahal izango da:

- Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen ES71 2095 0611 09 1062462774 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.
- Kontratazio organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean (ikusi abalaren eredua, VIII. eranskina ).

2.- Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKL Legearen 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL Legea neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKL Legean ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema baten moduan edo aurrekalifikazio sistema baten moduan, eta organo horiek haietan doan sartu daitezkeenean, enpresak ez du aurkeztu beharko toki horietan inskribatutako datuak egiaztatzen dituzten dokumentuak edo bestelako froga dokumentala. Izan ere, lizitatzaileak bakarrik adierazi beharko du, espresuki, dena delako erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela.

3.- Aurreko bi apartatuetako dokumentazio guztia eta ezarritako epearen barnean behar bezala aurkezten ez bada, ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan; diru kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan.

Aurreko lerroaldean aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki (SPKL Legearen 150.2 artikulua).

4.- Klausula honetan adierazia emandako epearen barnean betetzen ez duen lizitatzaileari, dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu, kontratatzeko galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLaren 71.2 a) artikuluan aurreikusiaren arabera.

-

**33.3.- Behin betiko bermea.**

1.- 145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du, eta kontratazio organoaren eskura jarri. Bermea lizitatzaileak eskainitako amaierako prezioaren % 5 izango da, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita. Berme horren eraketa 10 egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKL Legearen 150.2 artikuluan aipatutako eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera.

2.- Ezaugarrien taulako **18. atalean** agertzen den behin betiko bermea SPKL Legearen 108. artikuluan eta HAKLAO Legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako edozein modutan eratu ahalko da. Eskakizun hori esleipendunaren erruz betetzen ez bada, Administrazioak ez dio esleituko.

3.- Ezaugarrien taulako aipatu atalean hala aurreikusten bada, prezioa atxikitzearen bitartez eratu ahal izango da.

Prezioa atxikitzearen bitartez eratzen bada, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aldez aurretik berariazko baimena izanik, hartako zenbatekoa lehenengo fakturatik eta hurrengoetatik kenduz, zenbateko osora iritsi arte.

4.- Kontratistari eska dakizkiokeen zehapenak edo kalte-ordainak bermearen bitartez gauzatzen badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, haiek gauzatzen direnetik 15 egun naturaleko epean; horrela ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

5.- Kontratuan izandako aldaketaren bat dela eta kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia lizitatzaileari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta 15 egun naturaleko epean, hain zuzen prezio berriarekiko proportzioa mantendu dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLaren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuez erantzuteko erabiliko da. Kontzeptu horien barruan sartuta dago kontratistak ez betetzea kontratuari lotutako prestazioak oker betetzearen ondorioz hirugarrengoei eraginkako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKL Legearen 196. artikuluan jasota dagoena.

7.- Behin-behineko bermea eratzen denean, esleipendunak aukeran izango du behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatzea edo azken hori berriro eratzea

8.- Berme osagarria SPKL Legearen 107.2. artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako 18. atalean xedatutakoari jarraituko zaio.

**33.4.- Esleipena**

1.- Kontratazio organoak 33.2 klausulan aipatzen den dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua.

Pleguan agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamen bat dagoenean, lizitazioa ezingo da esleitu gabe utzi.

2.- Esleipenaren ebazpena arrazoitua izan beharko da eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuta egon beharko da 15 eguneko epean.

3.- Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

4.- Aurreko atalean aipatzen den jakinarazpen eta publizitatean esleipen-prozeduran interesa duten pertsonek esleipenaren erabakiaren aurka behar bezala arrazoitutako errekurtsoa ipintzea ahalbidetzeko beharrezkoa den informazioa jasoko da, eta zehazki SPKL Legearen 151.2. artikuluan eskatzen dena.

5.- Esleipenaren arrazoiketan aplikagarri izango da SPKL Legearen 155.3. artikuluan konfidentzialtasunarekin lotuta agertzen den salbuespena.

6.- Edozein kasutan, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean hura SPKL Legearen 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatzeko epea adieraziko da.

7.- Jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan bertaratuz egingo da.

## 34. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

1.- Kontratua lizitazioaren baldintzekin zehaztasun osoz bat datorren administrazio-dokumentu bidez formalizatu beharko da, dokumentu hori edozein erregistro publikora sartzeko nahikoa titulu izango delarik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango ditu eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Kontratuaren sinadura-dokumentuan ezingo da, inolaz ere, esleipen baldintzak aldatzen dituen klausularik sartu.

2.- Kontratua formalizazioaz burutzen da eta, horrenbestez, ezin izango da inolaz ere kontratua betetzen hasi, aurrez formalizatzeke.

3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipenduna ordezkatzen duen pertsonak honakoak aurkeztu beharko dizkio kontratazio organoari:

a) Bere identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten agiriak.

b) Esleipenduna aldi baterako enpresa elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFK zenbakia eta ahal nahikoz hornitutako ordezkaria izango den pertsonaren izendapena.

Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu bada, esleipendunak berretsi egin beharko du ziurtagiria ematea eragin zuten zertzeladak indarrean daudela.

4.- Kontratuari kontratazio arloko errekurtso berezia ipini ahal bazaio, formalizazioa ezingo da gauzatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei igorri eta 15 egun baliodun igarotzen diren arte.

Kontratua sinatzeko, kontratazio organoak gehienez bost eguneko epea emango dio esleipendunari, esleipendunak eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita, baldin eta aurreko lerroaldean adierazitako epea iragan bada eta kontratuaren sinadura etetera behartzen duen errekurtsorik ez bada jarri. Era berean jokatuko du, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etena altxatu duenean.

5.- Gainerako kasuetan, kontratua beranduenez 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

6.- Kontratuaren edukian espresuki jaso beharko dira esleipendunak proposamen teknikoan, eta alderdi sozialen eta ingurumenekoen gaineko esleipen irizpidetzat baloratutako alderdiei dagokienez, bere gain hartutako obligazioak, hain zuzen ere urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauak, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoak, 11.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat.

7.- Esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio kontratua ez balitz formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan, diru kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan, SPKL Legearen 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera kontratatzeko debekuan deklaratu ahal izatearen kalterik gabe.

8.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzek eragindako kalteen ordaina emango zaio kontratistari.

9.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLaren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## III. KAPITULUA- KONTRATUA EGIKARITZEA

## 35. KONTRATUAREN ARDURADUNA

1.- Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat esleituko du kontratuaren esleipenaren ebazpenean. Hura arduratuko da kontratua gauzatzen dela behatzeaz eta adostutako prestazioa behar bezala burutzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta argibideak emateaz.

Halaber, kontratuaren arduradunak kolaboratzaileak izan ditzake, titulu profesional edo ezagutza espezifikoak aintzat hartuz, kontratuaren esleipenaren ebazpenean bertan identifikatuko direnak.

2.- Kontratuaren arduraduna da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

3.- Bere eginkizunak garatu ahal izateko, arduradunak eta laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren xede den prestazioa garatzen den lekuetara, eta egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, kontratistak koordinatzaile izendatzen duen pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko erabakigarriak badira. Kasu

horietan, kontratuaren arduradunak lekuetara sartzeko beharra justifikatu beharko du, espresuki eta espediente administratiboan zehaztuta; espediente hori kontratazio organoak berretsi beharko du aurretik.

Era berean, egoki deritzoten informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala betetzeko beharrezko bilerak sustatu eta deitu, betetze horretako edozein gorabehera bideratu ahal izatearren.

Kontratuaren arduradunak egokiak diren jarraibideak finkatuko ditu.

4.- Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Egiaztatzea kontratuaren terminoetan gauzatzen dela, eta aurreikusitako epean. Bereziki, eginkizun horri esker kontratuko kalitatearen betekizunak eta klausula sozial, ingurumeneko, sozial eta berritzaileak, betetzen ote diren egiaztatzeko beharrezkoak diren ekintzak burutzea.

b) Kontratazio organoari aditzera ematea edozein motatako ez-betetzeak eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko, kontratua behar bezala gauzatzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko edo administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dituen kalteengatiko ordaina emateko prozedura abia dadin proposatzea.

c) Kontratuan beharrezkoa den edozein aldaketa gomendatzea, esate baterako, zehaztapenak, argibideak edo eragiketa eraginkorragoak ekarriko dituzten bestelako betekizunak.

d) Kontratuari atxikitako pertsona zein material aldetiko aldaketak baimentzea, betiere kontratazio organoak emandako jarraibideen ildotik, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.

e) Luzapenen premia eta egokitasunaren berri eman eta arrazoitzea.

f) Egiaztatzea, hala badagokio, enpresa kontratistak betetzen dituela azpikontratatuekiko edo hornitzaileekiko ordainketa betekizunak.

5.- Kontratua bete bitartean aldatzen badira kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera.

### 36. -KONTRATISTAREN PERTSONA ORDEZTEA

1.- Enpresen edo horien jarduera-adarren bategite, banaketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua esleitzen zaion erakundearekin, eta erakunde horri subrogatuko zaizkio harengandik sortutako eskubide eta betebehar guztiak, SPKL Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen baldin badira. Kontratista aldi baterako enpresa elkartea denean, SPKLaren 69.8 artikuluan jasotakoa beteko da.

2.- Kontratistaren betebeharra da Administrazioari jakinaraztea bere nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa, eta dagozkion fakturak ordaintzeko aurreikusitako legezko epeak eten egingo dira datuak egiaztatu arte.

3.- Kontratua esleitzen zaion erakundeak kaudimenari dagokionez beharrezkoak diren baldintzak ez betetzeagatik subrogazioa ezinezkoa balitz, kontratua eten egingo da, eta esleipendunaren erruz gertatutako etete kasutzat hartuko da ondorio guztietarako.

### 37. -KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak pertsona edo enpresa esleipendunak hirugarren pertsona bati laga dakizkioke, betiere, horien trebetasun tekniko edo pertsonalak ez badira erabakigarriak izan kontratuaren esleipenean eta lagatzearen ondorioz merkatuko lehian egiazko murrizketarik gertatzen ez bada.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatua izatea.

c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren betetze fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea. Gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta horri ez dio eragin behar kontratatzeko inolako debekuk.

d) Esleipendunaren eta lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

3.- Lagatzea subrogaturik geratuko da, lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztiei dagokienez.

## 38. - EXEKUZIOAREN BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK

### 38.1.- Baldintza orokorrak.

1.- Kontratua agiri honetan ezarritako klausulei eta baldintza teknikoen agiriari zurrunki jarraikiz gauzatuko da, eta, interpretatze aldera, kontratistak edo kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideei jarraikiz.

2.- Kontratistak berak izango du zerbitzuaren kalitatearen erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko burutzapenek administrazioari edo hirugarrenei dakarzkieten ondorioena ere.

3.- Kontratistak edo enpresa kontratistak giza talde eta bitarteko egokiekin egin behar ditu obrak eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Proposamenean aipatutako makinak eta bitarteko teknikoak ere obretan jarriko ditu eta, oro har, obrak ondo egiteko behar diren guztiak.

4.- Kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, balizko kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa esleipendunak aseguru kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, baldin eta ezaugarri taularen **24. atalean** hala jasotzen bada, aipatutako estaldurak seguratu eta han zehaztutako aseguru osagarriak izan beharko ditu.

Nolanahi ere, kontratistaren gain joango dira aseguru polizetan ezarrita egon litezkeen mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta aseguru polizetan estali gabeko ondasunei eta arriskuei legozkiekeenak ere.

5.- Administrazioak zehaztuko du kontratistaren prestazioa hori gauzatu eta betetzeko jarritako baldintzetara egokitzen ote den, eta, hari eskatuko dio, hala badagokio, kontratupeko prestazioak egin ditzala eta hautemandako akatsak konpondu ditzala. Kontratistak ez baditu lanak egin hitzartutako prestazioaren arabera, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egozten ahal bazaizkio, lanak ezetsi egin ditzake, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

6.- Lizitazioan parte hartzen duten enpresek borondatez onartzen dute erakunde gardentasuna ematea lizitazio, esleipen eta exekuzio prozesuak direla eta sortzen diren datu guztiei.

### 38.2.- Kontratua betetzeko baldintza bereziak

1.- Kasu honetan, aurrekontu ekitaldi bakoitzean abenduko lehenengo hamabostaldian eta, beti ere, jasotzen den aurreko hilabetean, enpresa kontratistak esleipen irizpideen eta izaera sozialeko gauzatze baldintza berezien ebaluazioa aurkeztu beharko du, X. ERANSKINEAN azaltzen den moduan.

2.- Aurreikusitakoez gain, ezaugarrien taulako **20. atalean** gauzatzeko betebehar bereziak dira jarraian adierazten direnak:

#### 38.2.1.- Lan eta gizarte arloko baldintza eta ingurumenaren babesaren arlokoak

1.- Kontratistak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun nahiz osasun eta ingurumenaren babes arloetako lege, araudi eta hitzarmen xedapen guztiak bete beharko ditu, baita baldintza agiri hauetan xedatutakoak ere.

2.- Kontratua sinatu eta hilabeteko epean gehienez, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu edo obren harrera akta egin aurretik, baita kontratazio organoak edo kontratuaren arduradunak egoki jotzen duen unean, esleipendunak dokumentazio hau aurkeztu behar du:

Kontratua gauzatzera atxikita dagoen pertsona kopuruaren zerrenda nominalaren zinpeko aitorpena, sexua, lanaldia, lan kategoria, kontratuaren iraupena eta soldatak zehaztuz.

ITA agiria (Altan dagoen Langilearen Txostena, Gizarte Segurantzak egina) eta langileak, enpresaren antzinatasuna eta kotizazio oinarriak aitortzen dituen Gizarte Segurantzak igorritako ziurtagiria.

Hala badagokio, enpresaren TC1 eta TC2 ereduak edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eredu estandarraren araberako lan kontratuen kopiak.

Hala badagokio, langile batzordearen ziurtagiria, hitzarmen kolektiboa eta lan baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena.

3.- Kontratistak kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko dizkien lan baldintzak izango dira enpresa kontratistaren jarduera kokatuta dagoen sektorearen maila txikieneko esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak; betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak. Dena dela, soldata baldintzak bete beharko dituzte aplikaziozkoa den hitzarmen kolektiboari jarraikiz.

4.- Lizitatzaileek zehaztu beharko dute kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa. 4.- Horretarako, kontratua esleitu ondoren, kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

5.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, baldin eta esleipenaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari. Komunikazio horretan negoziazioari buruzko justifikazio dokumentazioa agertu beharko da, bai eta lan baldintza berrien edukia, aldaketa horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

6.- Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, azpikontratatutako enpresarik balego, bertako langileen gizarte segurantzako afiliazioa eta alta egiaztatu beharko dira; informazio hori kontratazio organoari jakinarazi beharko zaio.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.2.2.- Kontratuaren betetzeari atxikitako langileei buruzko baldintzak**

1.- Esleipendun gisa proposatutako enpresak aurkeztu behar du, kontratatutako jarduerari hasiera eman aurretik, kontratua betetzera bideratutako langileen zerrenda, eta, aldi berean, egiaztatu beharko du haiek Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela.

Horren ordez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango du, data horretan kontratua betetzen arituko diren langileak kontratupean ez izanari buruz eta haiek kontratatzen dituenean haien guztien afiliazio eta alta egiaztatzeko konpromisoari buruz, hori guztia kontratupeko jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresa kontratistak kontratu honetan jasotako zerbitzu guztiak eskainiko ditu aurreko atalean aipatutako langileekin. Kontratua amaitu ondoren, langile kopurua hasieran zegoen kopuru bera izango da gehienez ere, kontratazio organoak kopuru handiagoa espresuki baimendutako kasuetan izan ezik, betiere enpresa kontratistak behar bezala arrazoitutako justifikazioa aurkeztu ondoren.

Nolanahi ere, enpresa kontratistak, aldez aurretik, kontratuaren exekuzioari atxiki beharreko langile berriak kontratatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio kontratuaren arduradunari, eta kontratazio organoaren berariazko baimen idatzia eskuratu beharko du. Zehazki, kontratazio berriaren eta horrek plantillaren egituran eta gastuetan dituen eraginaren justifikazio txostena aurkeztu behar du kontratistak. Kontratua bukatutzat eman ahal izango da, lan baldintza berrien eraginez, kontratua ezin bada esleitutako aurrekontuarekin gauzatu.

3.- Enpresak kontratuaren xedeari atxikiko dituen langile berriak kontratatzen dituenean, behartuta egongo da entitate kontratatzaileari informazio eta dokumentazio hau ematera:

- Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.
- Kontratuen modalitatea, xedea, kategoria edo talde profesionala eta lansaioa.
- Urteko soldata gordina (ordainsarien kontzeptuen arabera xehatuta).
- Hala badagokio, hitzarmen kolektibo aplikagarria eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Behar denean, lan horretarako gaitzen duen titulu akademikoa.

4-. Enpresa kontratistak agiri hauek bidaliko dizkio hiru hilean behin kontratuaren arduradunari: kontratuari atxikitako langileen zerrenda eta kontratuari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridikoena; langileen soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketari buruzko egiaztagiriak.

5- Espresuki debekatzen da blindatze klausularen bat adostuta duten langileak atxikitzea kontratuaren exekuzioari, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarrita ez badago behintzat.

6- Kontratuaren baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko, kontratazio organoak beharrezko informazio pertsonal egokia bakarrik eskuratu ahal izango du, gehiegizkoa izan gabe eta datuen kalitate printzipiora egokituta, betiere datu babesaren legerian jasotako printzipioak betez.

7.- Azpikontratistak betetzen ez baditu bere soldata betekizunak, Gizarte Segurantzarekikoak edo hitzarmen kolektiboan ezarritako lan baldintzak, esleipendunak azpikontratua amaituko du, kontratazio organoak eskatuta. Betekizun hori ezinbestekoa da; ondorioz, bete ezean kontratazio organoak eskubidea izango du kontratua amaitzeko.

8.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.2.3.- Subrogazio kasuetako baldintzak**

1.- SPKLaren 130. artikuluan jasotako informazio betebeharra aplikatuz, subrogatzeko betekizuna egon daitekeelako itxura egonda hortik ondorioztatu gabe, inola ere, subrograzio horren existentzia eta irismena aurre-epaitzea, kontratuaren xede den prestazioa ematen ari den enpresak emandako datuei jarraikiz, ezaugarrien taulako **25. atalean** informatzen da subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzez, enpresa lizitatzaileek beraiei kontratua esleituz gero benetako lan kostuen ebaluazio egokia egin dezaten.

Informazioa hau da: subrogatu den langileen zerrenda, aplikaziozkoa den hitzarmen kolektiboa, lan kategoriam kontratu mota, antzinatasun data, egunek lanaldia, kontratuaren amaiera, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioaren eraginpeko langileei aplikatzen ahal zaizkien indarrean dauden paktuak eta, behar denean, titulazio akademikoa.

2.- Lizitazio honetan kontratista ateratzen den enpresak, honen ondoren datorren hurrengo kontratua lizitatu aurretik, langile enplegatzaile den aldetik, kontratazio organoari lehen atalean biltzen den informazioa ematera behartuta egongo da, kontratazio organoak eskatuta.

Horretarako, kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago, une horretan egin beharreko hilabeteko lanen ziurtagiria egin aurretik eta, halaber, egin beharreko azken ziurtagiria egin aurretik, enpresa kontratistak data horietan eguneratutako ziurtagiri positiboak aurkeztu behar ditu, Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko, edo, bestela, agiri bidez egiaztatu behar du ordainduta daudela kontratuaren exekuzioari atxikitako langileei dagozkien Gizarte Segurantzako kuotak.

3.- Enpresa kontratistak, kontratua amaitu ondoren eta honen ondorengo kontratu berria gauzatzen hasi aurretik, esleipendun berriari ondoko datuei buruzko langileen ordezkarien ziurtagiria bidaliko dio: langileeen izenak, jaioteguna, jasotzen duen edozein motako laguntzen zenbatekoa (ordainketa kontzeptuta zehaztuta), antzinatasuna, kontratu modalitetea, aurreikusten den kontratuaren iraungitze data, lan-jardunaldia, maila edo talde profesionala eta aplikagarri diren paktu guztiak, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko betebeharretan egunean egoteari buruzko ziurtagiria, proportziozko zatien likidazioen agiriak; orobat, enpresa esleipen hartzaile berriaren esku jarri beharko ditu, baita ere, aurreko agiri guztiak egiaztatzeko beharrezko irizten dituen dokumentuak ere.
Enpresak langileen ordezkariak baditu, egiaztagiriarekin batera hark emandako txostena aurkeztu beharko du, gutxienez aurreko paragrafoan zehazten diren datuen ingurukoa.

4.- Baldin eta subrogazioa gertatu ondoren lan kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio organoari emandako informazioaren arabera dauden kostuak baino, kontratista berriak zuzenean aurreko kontratistaren aurka egin dezake.

5.- Prestazioa uzten duen kontratistak erantzungo du subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabe utzitako soldatez eta Gizarte Segurantzako kotizazioez, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langileak kontratista berriak subrogatuak izan, inola ere betebehar hori azken kontratista horri egotzi gabe (salbu eta subrogazioa Langileen Estatutuko 44. artikulua aplikatuta gertatu bada). Horretarako, entitate kontratatzaileak atxiki egingo ditu, behin soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatuta, kontratistari zor zaizkion kopuruak, soldata horien ordainketa bermatze aldera, eta, gainera, ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldaten ordainketa egiaztatu arte.

6.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

### 38.2.4.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak

1.- Euskadiko Autonomia Estatutuko 6. artikuluan xedatutako bi hizkuntza ofizialen araubidearen mende dago kontratu hau, hain zuzen ere 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen esparruko euskararen erabilera normalizatzeko planak xedatutako moduan.

2.- Ezaugarrien taulan bestelakorik adierazten ez bada, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan entregatuko ditu kontratuaren xedea osatzen duten azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak, software ezberdinen testu eta soinu interfazeak barne.

3.- Diseinu eta jarduketa guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleztapenak, oharrak eta jakinarazpenak) planteamendu elebidun batekin egin behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz; dena dela, kasu jakin batzuetan, egokia izan daiteke euskarari lehentasuna ematea, planteatutako ekintzaren ezaugarrien arabera eta herritarren segmentuaren arabera. Beti ere, herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatuko da.

4.- Kontratuak exekutatzeko orduan, hirugarrengoekin edo oro har herritarrekin harremanik eduki behar bada, kontratua exekutatzeko ardura duen enpresaren eta kontratua dela eta harremanak eduki beharreko hirugarren pertsonen arteko idatzizko eta ahozko komunikazioa egiteko orduan, erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak kasu bakoitzean hautatutako hizkuntza erabiliko da. Lehenetsitako aukerarik aipatzen ez bada, esleipena egiteko ardura duen enpresak pertsona fisiko zein juridikoei bidaltzen dizkien jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dira. Horrek ez du eragozten, edozein unetan, herritarrak nahiago duen hizkuntza hautatzeko eskubidea erabiltzea, eta hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzeko eskatzea.

5.- Hizkuntza arloko betekizun hori ez betetzeak berekin ekarriko du SPKL Legearen 192. artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzea, kontratuaren xede den prestazioa akatsekin gauzatzeagatik.

6.- Zigorra, ez betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki.

### 38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak

1.- Enpresa esleipendunak, kontratua exekutatzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.

2.- Enpresa esleipendunak lengoaia ez-sexista erabili beharko du kontratu hau exekutatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Enpresa esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, kontratuak hamar langile baino gehiago eskatzen dituen kasuan.

### 38.2.6.- Baldintzak azpikontratazioan

1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi behar dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa, zerbitzuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratistak nortzuk diren zehaztuz. Horrez gain, azpikontratisten izena, harremanetarako datuak eta lege ordezkariak zeintzuk diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratistek kontratua gauzatzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, baita Administrazioarekin kontratatzeko debeku egoeran ez daudela ere.

   Azpikontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunezko aitorpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

   Azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan zehaztutakoarekin, bai eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako, edo eskaintzan adierazitako profil

profesionalaren araberakoak ez direlako, ezin izango dira egin, jakinarazpena bidali eta gaitasunari nahiz kaudimenari buruzko egiaztagiriak aurkezten direnetik 20 egun igaro arte, non eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta Administrazioak ez badu, epe horren barne, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratistak, eskaintzan, lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

b) 20 eguneko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

c) Isilpeko kontratuetan edo izaera erreserbatukoetan, edo segurtasun neurri bereziez babestuta gauzatu beharrekoetan, lege nahiz araudien arabera, edo estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatzen duenean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio organoaren berariazko baimena beharko da beti.

2.- Ezaugarrien taulako **17. atalean** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- Kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira azpikontratistak, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko baititu baldintza administrazio berezien agiria eta kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak nahiz ingurumen arlokoak barne.

Enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa ez da ezertan aldatuko, nahiz eta aurreko 1. atalaren a) eta b) letretan adierazitako komunikazioen indarrez egin diren azpikontratuen berri izan Administrazioak – edo c) letran ezarritako kasuan emandako baimena izanda ere.

4.- Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari buruzko informazioa eman beharko dio langileen ordezkaritzari, lan legerian xedatutakoaren arabera.

6.- Enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratua islatuko den dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio organoaren aurrean. Bertan, enpresa edo entitate azpikontratistaren betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan, eta haiek ez betetzeak sortzen dituen ondorioak ere zehaztu beharko dira.

7.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 216. artikulua bete beharko da, baita abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza eragiketetako berankortasunaren arauko neurriak ezartzen dituena, aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa ere.

8.- Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz bete dituen egiaztatu ahal izango du Administrazioak.

Horretarako, Administrazioak hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko dio kontratistak, xehetasun guztiekin, haien parte hartzea gauzatzen denean; bertan, bakoitzaren azpikontratazio edo hornikuntza baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordainketaren epearekin zerikusi zuzena dutenean.

Halaber, Administrazioari frogagiri bat aurkeztuko dio, horrek hala eskatuz gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutako ordainketa epeak bete direla adierazten duena.

### 38.2.7. Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak

1.- Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

2. Enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratu honen xedeari lotuta dauden langileen osotasunarentzat edo osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

3.- Ezingo da kontratuaren xede den jarduera abian jarri, baldin eta aldez aurretik foru administrazioak jarduera hauek egin ez baditu:

- Jardueran parte hartzen duten enpresei lantokiko arriskuen berri ematea, hain zuzen ere bertan garatu beharreko jardueretan eragina izan dezaketena, baita arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien berri ematea ere.

- Enpresa kontratistari larrialdietarako neurrien berri ematea.

4.- Lantoki horretan, enpresa bat baino gehiagoko langileek lan egin behar badute, jarduera abian jarri baino lehen, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 171/2004 30 Errege Dekretua betez, enpresa eta langile autonomo guztiek elkarlanean jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jardueren berariazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldiberekotasunagatik sortzen diren arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

5.- Jarduera abian jarri baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berariazko arriskuen, arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien eta larrialdi kasuetarako neurrien inguruko dokumentazioa jaso izanaren agiri sinatua aurkeztu beharko dute bai kontratistak, bai azpikontratistak, baldin eta halakorik badago.

6.- Enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, Gipuzkoako Foru Aldundia zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte

**38.2.8.- Enpresa kontratistaren langileei buruzko baldintzak**

1.- Bakarrik enpresa kontratistak aukeratuko ditu baldintza agirietan jasotako titulazio eta esperientzia baldintzak (titulazio eta esperientziari buruzko berariazko baldintzak jarriz gero) bete eta kontratuaren betetzeari atxikitako lantaldean sartuko diren langileak. Halere, horrek ez du kenduko kontratazio organoak baldintza horiek betetzen direla ziurtatzea.

2.- Enpresa kontratistak, bere langileei dagokienez, egiaz, eraginkortasunez eta jarraiaz erabiliko du enpresariei datxekien zuzendaritza boterea. Horregatik, bada, eginkizun hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatu eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; laneko arriskuak ekiditeko lege betebeharrak betetzea; beharrezko gertatuz gero, diziplinazko zigorrak ezartzea; Gizarte Segurantzako xedapenak eta, bereziki, kotizazioak eta prestazioak ordaintzeari dagozkionak betetzea; eta kontratu harremanetik datozen gainerako eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

3-. Enpresa kontratistak aukeratu behar du koordinazio teknikoaren arduradun bat gutxienez; arduradun hori enpresako langilea izango da eta hauek izango dira bere eginkizunak:

a) Enpresa kontratistaren solaskide izatea kontratatzailearen aurrean, kontratista eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratzeko, kontratua gauzatzeak eragingo dituen gaiei dagokienez.

b) Lana banatzea kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean, eta kontratatutako zerbitzua eskaintzeari dagokionez eman beharreko lan aginduak eta instrukzioak ematea.

c) Gainbegiratzea lantaldeko langileek behar bezala betetzen dituztela beraien eginkizunak, eta langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea.

d) Kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen opor erregimena antolatzea; horretarako, enpresa kontratista eta kontratatzailea behar bezala koordinatu behar dira zerbitzuaren funtzionamendu ona mantentzeko.

e) Kontratuaren exekuzioari atxikitako lantaldeko konposizioan izandako aldaketen berri ematea entitate kontratatzaileari, aldizkakoak nahiz iraunkorrak izan, 35.2.2 klausulan jasotakoari jarraikiz.

4.- Enpresa kontratista behartuta egongo da kontratua bere egoitza edo instalazioetan egitera, non eta aurreikusi ez den entitate kontratatzailearen egoitzan eman behar direla zerbitzuak, betiere berariaz baimendu bazaio. Kasu honetan, Administrazio kontratatzaileak enpresa kontratistaren eskura jarriko ditu lan guneak, langile publikoek hartzen dituzten lekuetatik aparte, eta enpresa kontratatzaileari dagokio bere langileen begirunea zaintzea eta zerbitzu horiek esleitutako lekuan ematea.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako,

administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.2.9.- Informazioaren segurtasunaren esparruko baldintzak**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasunari buruzko Politika (aurrerantzean ISP) bete beharko du esleipendunak, hain zuzen ere 2017ko azaroaren 13ko GAOn argitaratutakoa (216. zk.) baita zerbitzu edo informazio horiekin zerikusia duen segurtasun araudia ere; horrez gain, politika horren inguruko informazioa eta prestakuntza eman beharko die bere langileei (Informazioaren Segurtasunari buruzko Politikak zehaztutako mailan).

2.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira entitate kontratatzailearekin duen harremana amaituta ere.

3.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da; baita entitate kontratatzaileak xedatutakoa betez ere.

4.- Esleipendunak ezingo ditu datu horiek hirugarrengoei laga edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.

5.- Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neuri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko, aukera horiek bai giza jardueratik beretik bai ingurune fisiko edo naturaletik datozenak izan daitezkeelarik.

6.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

7.- Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari.

8.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**38.3.- Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du kontratazio publikoen arloko jardunbideetan erakutsi behar diren balio etikoak eta jokabideak nahiz kudeaketa onaren printzipioak eta jardun profesionalerako arauak jasotzea.

2.- Hori guztia, kontratazio publikoei buruzko Europako Parlamentuaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE Zuzentarauaren 16. kontuan hartuzkoan aurreikusitakoaren arabera, zeinak aginte publikoak behartzen dituen bitarteko posible guztiak baliatzera kontratazio publikoetako prozeduretan interes gatazkak ekiditeko. Gainera, honako hau adierazten du, zehazki: “horrek ekar dezake interes gatazkak antzemateko, ekiditeko eta ebazteko prozedurak erabiltzea”.

Horregatik guztiagatik, prozedura honen osotasuna bermatze aldera, Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatzeko jokabide kodea eta erakundearen zuzentasun esparrua betetzeari buruzko adierazpen eredua gehitzen da IV. ERANSKINEAN.

3.- Kode hori oinarrizko betebeharra da, eta ezinbestean bete behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako lizitazioetan lehiatzen diren enpresek eta entitateek eta horien esleipendunek. Ez betetzeak kontratazio organoa gaituko du ez betetzea egin duen enpresa edo entitatea kanporatzeko, edo, hala balegokio, kontratua bertan behera uzteko haien erruz bete gabe geratu delako, legeak halakoetarako ezarritako ondorioekin.

4.- Kontratua bertan behera uzten ez bada, zigorra ezarriko zaie, Jokabide Kodearen ez betetze bakoitza arau-hauste larritzat tipifikatuko da; zigor hori kontratuaren aurrekontuaren % 10era artekoa izan daiteke, BEZik gabe.

5.- Zigorrak ezartzeko prozedurak aintzat hartuko ditu zigorraren kontraesan eta graduazio printzipioak, eta aintzat hartuko ditu, orobat, proportzionaltasuna eta gainerako inguruabarrak.

### 38.4.-Baimen, lizentzia eta onarpenen kudeaketaren inguruko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistaren kontura eta haren ardura izango da, baldin eta kontratazio organoak bere kabuz kudeatzea erabakitzen ez badu, lanak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimen, lizentzia eta onarpenak eskuratzea, bere kontura eskumeneko organismoen baldintza eta manuak errespetatu beharko dituelarik.

2.- Baimenak, lizentziak edo onarpenak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat badakar, horiek ordaintzea edo gordailuak egitea ere kontratistaren kontua izango da.

### 38.5.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak

Kontratistaren kontura dira kontratua formalizatzeko gastuak, eskritura publikoa egiten den kasuetan, eta baita kontratua betetzeari begirako lizentzia eta baimen guztiak ere.

### 38.6.- Lan programa

1.- Administrazioak egoki iritziz gero ezaugarri teknikoen baldintza-agirian ezarriarekin bat lan programa bat eskatzeari, esleipendunak programa hori aurkeztu beharko dio administrazioari, honek, hautatutako aukerari buruzko dokumentuekin batera, onartu eta, hala badagokio, epe partzialak finkatu ditzan.

2.- Kontratuzko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak lan-programa eguneratu beharko du derrigorrean, eta, horretarako, ematen zaizkion jarraibideak jarraitu beharko ditu.

## 39. OBRA PROIEKTUAK PRESTATZEKO KONTRATUARI BURUZKO BEREZITASUNAK

1.- Enpresa kontratistak ezaugarrien taulako **8. atalean** jasotako epearen barruan entregatu beharko ditu egindako lanak. Kontratuaren arduradunak azterketa bat egingo du aurkeztutako dokumentazioaren inguruan eta, ezaugarri teknikoak bete direla uste badu, obrak hartzea proposatuko du.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, obra proiektuak idazteko lanari buruz, idazketa egiteko epea bukatu baino gutxienez hilabete lehenago, kontratuaren arduradunari dokumentuaren zirriborro osoa entregatu behar zaio, hark azter dezan eta, behar dituen doiketak egin ondoren editatuta, onartutako idazketa epearen barruan aurkez dadin behin betiko dokumentua.

### 39.1.- Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea.

1.- Zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat osorik egiteko baldin bada, egotzi ahal zaizkion okerrak, trakeskeria teknikoak, oker materialak, ez-egiteak eta erregelamendu edo lege mailako arau-hausteak zuzentzeko eskatuko dio kontratazio-organoak kontratistari, eta, horretarako, ezaugarrien taulako **8. atalean** adierazi beharreko epea emango dio, gehienez ere bi hilabetekoa.

2.- Epe hori amaitu eta ez baditu oraindik okerrak zuzendu, administrazioak bi aukera izango ditu, tartean diren gorabeherak kontuan harturik: kontratua suntsiaraztea edo kontratistari beste epe bat ematea SPKLaren 314. artikuluan aurreikusita dagoen eran eta bertan jasotako ondorioekin.

3.- Kontratistak erreklamaziorik egiten badu kontratuaren arduradunak egindako oharrei dagokienez, arduradunak kontratazio organoari helaraziko dio erreklamazioa, txostenarekin batera, organo horrek ebatzi dezan.

4.- Kontratistak ez badu idatzizko erreklamaziorik aurkezten kontratuaren arduradunak egindako oharrei dagokienez, haiekin ados dagoela ulertuko da eta, beraz, antzemandako akatsak zuzendu edo konpondu egin behako ditu.

### 39.2.- Kalte-ordainak obren exekuzioan izandako desbideratzeengatik eta proiektuko akatsen edo errakuntzen erantzukizuna.

1. Proiektuan aurreikusitako obra-exekuzioaren aurrekontua ehuneko 20tik gora desbideratzen bada, goitik nahiz behetik, obraren kostu errealetik, kontratista aholkulariari leporatu beharreko akats edo omisioengatik, proiektua egiteko kontratuaren prezioa gutxitu egingo da, kalte-ordain kontzeptupean, desbideratze portzentajearen arabera, gehienez ere prezioaren erdiraino, SPKLaren 351.1 artikuluan jasotako kalte-ordainei jarraituz.

2. Aurreko atalean, aurreko klausulan eta SPKLaren 233.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa jasota ere, obrak egin edo ustiatu bitartean administrazioari edo beste hirugarren batzuei kalte eta galerak eragiten bazaizkie proiektuak dituen eta kontratistari egotzi ahal zaizkion akats eta hutsune teknikoengatik, edo hark egindako errakuntza material, ez-egite eta lege edo erregelamendu mailako arau-hausteengatik, erantzukizuna kontratistarena izango da.

Kontratistaren erantzukizun horrengatik ordaindu beharreko kalte-ordaina eragindako kalteen ehuneko 50 izango da, baina, gehienez ere, proiektuaren prezio itunduaren halako bost. Administrazioak proiektua jasotzen dituenetik hasi eta, gehienez ere, hurrengo hamar urteetan izango da zilegi kalte-ordain hori eskatzea, eta ez baldin bada nahikoa hirugarrenei eman beharreko kalte-ordaina ordaintzeko, falta dena administrazioak jarri beharko du.

## 40. - ZERBITZU KONTRATUEN BEREZITASUNAK, HERRITARRENTZAT ZUZENEKO PRESTAZIOAK DAKARTZATENEAN

1.- Kontratistaren betebeharrak dira dena delako zerbitzua adostutako jarraitutasunaz ematea, eta partikularrei zerbitzua erabiltzeko eskubidea bermatzea aurrez xedatutako baldintzetan eta, kasua bada, finkatutako prestazio ekonomikoa ordainduta; zerbitzua ondo dabilela zaintzea; zerbitzua eskaini behar horretan inori kalterik eraginez gero, kalte-ordaina ematea, non eta kaltea ez den administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik; eta, behar den kasuetan, kontratatutako obrak eta instalazioak artapen eta funtzionamendu egoera egokian entregatzea.

2.- Kontratistak kontratua ez betetzeagatik nahasmendu larri eta beste baliabide batzuekin konpondu ezinekoa sortzen bazaio zerbitzuari, eta administrazioak kontratua suntsiarazteko erabakirik hartzen ez badu, nahasmendua desagertu arte zerbitzua bahitzea edo hartan esku hartzea erabaki dezake Administrazioak. Nolanahi ere, kontratista behartuta egongo da eragindako kalte eta galerak ordaintzera Administrazioari.

3.- Administrazioak beharrezko polizia-ahalmenak izango ditu, herritarrei zuzeneko prestazioak dakarzkien zerbitzuen martxa ona ziurtatzeko.

## 41. JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Baldin eta kontratuaren xedea bada jabetza intelektual edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea, hark berekin ekarriko du eskubide hori administrazio kontratatzaileari lagatzea.

## 42. BERANDUTZA ZIGORRAK ETA BESTE ZIGOR BATZUK

1.- Kontratazio organoak, SPKLaren 192. eta 193. artikuluetan ezarriarekin bat, zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik:

a) Guztizko epea edo epe partzialen bat ez betetzeagatik.

b) Prestazioa gaizki betetzeagatik; kontratazio publikoan aplikagarri diren hizkuntzari buruzko baldintzak, jokabide kodea eta erakunde zuzentasunaren esparrua edo kontratua gauzatzeko beste edozein baldintza berezi (SPKL Legearen 192. artikulua) ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.

c) Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina duen zerbait ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.

d) Soldatak ez ordaintzeagatik edo ordainketa behin eta berriro atzeratzeagatik edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzen azpitiko baldintzak aplikatzeagatik, modu larri eta dolozkoan.

e) Azpikontrataziorako betebeharrak, baldintzak eta gainerako betekizunak ez betetzeagatik.

f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, hori galdagarria denean.

g) Ez betetzeagatik 2014ko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauak, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruz kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoak, 30.2 artikuluan aurreikusten diren betekizunak.

2.- Aurreko puntuko ez-betetzeei lotutako zehapenen zenbatekoa honako hau izango da:

a) a) idatz-zatian barneratzen den arrazoia dela medio, SPKL Legearen 193. artikuluko 3. atalean aurreikusitako zenbatekoa, baldin eta ezaugarrien taulako **23. atalean** beste zenbait ezartzen ez badira.

b) b), c) eta d) idatz-zatietan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.

c) e) idatz-zatian barneratzen den arrazoia dela medio, azpikontratatutakoaren % 50 arte.

d) f) idatzi-zatian jasotzen den arrazoiagatik, eguneroko zehapen bat, euro batekoa kontratuko prezioaren 5.000 euroko, hala badagokio, lehenengo ziurtapenean deskontatuko dena.

e) g) letran jasotako arrazoia oso ez-betetze larritzat hartuko da b) idatz-zatian jasotako zigorrak aplikatzeko ondorioetarako.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziei so, hura behar bezala gauzatzeko aurreko atalean adierazitakoez aparteko zehapenak ezartzea beharrezkotzat jotzen bada, horiek ezaugarrien taulako **23. atalean** zehaztuko dira.

4.- Enpresa kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango administrazioak aurretik eskaera egitea.

5.- Bitartekoak baliatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak edo esleipenari dagozkion bestelako baldintza bereziak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zehapenak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina dutenak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zehapenak ezarriko dira, harreraren unean, kontratazio organoak ikusten duenean, kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio, azken horrek kontratua edo eskaintzan beregain hartutako konpromisoren bat ez dituela gauzatu, betiere, horiek garrantzitsuak izan badira esleipenari begira.

Bete ez diren konpromisoak adierazgarritzat joko dira, bete gabeko irizpidean kontratistak eskuratutako puntuazioaren % 50 deskontatu ostean, bere eskaintza ongien balioetsia ez bada.

7.- Gaizki betetzearen ondoriozko zehapenak ezarriko dira, kontratistak akats horiek konpontzeko legez duen betebeharraren gorabehera.

8.- Zehapena ezartzeak ez du kalte eta galerengatiko kalte-ordaina salbuesten (SPKL Legearen 196. artikulua).

9.- Berandutzearen ondoriozko zehapenen zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala badagokio, bermetik aipatu dokumentuetatik kentzea ezinezkoa denean. Bermea baliatuz ordaintzen direnean, kontratista behartuta geratuko da berme hori birjarri edo areagotzera, egikaritzen denetik 15 egun naturaleko epean. Hala egin ezean, kontratatua eteteko nahiko arrazoi dagoela ulertuko da.

## 43. KONTRATUAREN ALDAKETAK

1.- Behin kontratua perfekzionatuta, kontratazio organoak aldaketak sartu ahalko ditu bertan soilik interes publikoko arrazoiak direla medio, ezaugarrien taulako **21. atalean** hala aurreikusten denean edo SPKL Legearen 205. artikuluan agertzen diren kasuetan eta hartan ezarritako mugekin.

2.- Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren arduradunak dagokion proposamena idatziko du, hura justifikatu, deskribatu eta balioesteko dokumentuekin osatuko dena. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, kontratistari entzunaldia eman beharko dio eta dagokion gastua fiskalizatu beharko da.

3.- Ezaugarrien taulako **21. atalean** aurreikusitako aldaketak eta SPKLaren 205. artikuluan jasotako kontratu aldaketarako balizkoetan egokitzen direnak, bakarka edo elkarrekin kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20ko aldaketa gainditzen ez duen aldaketa eragiten dutenean –BEZ kanpo–, nahitaezkoak izango dira, betiere, kontratistarentzat, eta kontratazio organoak erabaki beharko ditu, SPKLaren 191. artikuluan eta HAKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura aurrez tramitatuta, eta dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLaren 153. artikuluan adieraziarekin bat, behin betiko bermea egokitu ondoren, hala behar denean.

4.- Ez enpresa kontratistak, ez arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioak eska lezakeen ardura eragotzi gabe, ezta 65. klausulan aurreikusitakoa ere, administrazioak behar bezala baimendutako aldaketak kontratuaren xedean, kontratistaren ardura ekarriko dute. Horrek aldaketak izan dituzten obrak berregin beharko ditu inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- Kontratuzko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, enpresa kontratistak lan-programa eguneratu beharko du derrigorrean.

**43.1.- Aurreikusitako aldaketak:**

1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da hala aurreikusi bada, plegu honetako ezaugarrien taulako **21. atalean** zehaztutakoaren arabera, hartan ezarritako inguruabar, baldintza, irismen eta mugekin, eta ezingo da hasierako prezioaren ehuneko hogeitik gorakoa izan.

2.- Inguruabarrak, baldintzak, irismena eta mugak aldatzeko arrazoi ugari aurreikusiz gero bakoitzari buruzko aipamena egin beharko da.

3.- Aurreikusitako aldaketek ez dute, inolaz ere, ekarriko kontratuan aurreikusten ez diren unitate-prezio berriak ezartzea.

**43.2.-Aurreikusi gabeko aldaketak**

1.- Ezaugarrien taulako **21. atalean** aurreikusitakoez aparteko aldaketak sartu ahal izango dira soilik SPKL Legearen 205.2. artikuluan tasatutako kasuetakoren bat edo ugari ematen dela behar bezala justifikatzen denean, eta derrigorrezko egiten dituen kausa objektiboari erantzuteko zeharo ezinbestekoak diren aldaketak sartzera mugatuz.

2.- SPKL Legearen 205. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, egoera horietan kontratua aldatu aurretik, zehaztapen teknikoak idatzi dituen pertsonari entzunaldia eman beharko zaio, baldin eta horiek kontratazio organoaz aparteko hirugarren pertsona batek prestatu baditu zerbitzuen kontratu baten arabera. Hala, gutxienez 3 egun naturaleko epea emango zaio komenigarritzat jotzen dituen kontsiderazioak egin ditzan.

3.- Ez dute aldaketa izaera izango prestazioaren exekuzio egokian zehar alde bat gertatzen bada exekutatu diren unitate kopuruaren eta kontratuan aurreikusitako unitate kopuruaren artean. Horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere ez badute eragiten kontratuaren prezioarekiko % 10eko gastu igoera bat.

**43.3.- Aldaketaren araubidea**

Bere araubideari dagokionez SPKL Legearen 203tik 207 artikuluetan xedatutakoa eta 191. eta 242. artikuluetan xedatutakoa beteko da, eta baita arauz xedatutakoa ere.

**44. KONTRATISTARI EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK**

1.- Zerbitzuaren ordainketa entrega egin eta adostasunez jaso ondoren egingo da, aurrez aurkeztuta, betiere, fakturak edo dokumentu baliokideak, ziurtagiriak entrega partzialak direnean, eta harrera-akta hala dagokionean. Horretarako, entrega-datatik 30 eguneko epea izango du kontratistak, faktura aurkezteko.

2.- Kontratistak eskubidea izango du kontratuaren betetzea prestatzeko lanen zenbatekoa kontura ordain dakion, baldin eta lan horiek kontratuaren xedean sartuta badaude, ezaugarrien taulako **27. atalean** adierazitako baldintzen arabera. Konturako ordainketa horiek bermea jarrita ziurtatu beharko dira.

3.- Faktura formatu elektronikoan aurkeztu beharko da abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoak, eta abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk arautzen dituenak, ezartzen dituzten balizkoetan.

Kasun horietan, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bitartez aurkezten diren faktura elektroniko guztiak automatikoki sartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarrera erregistro

elektronikoan, eta orobat sartuko da Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak kudeatzen duen fakturen kontabilitate erregistroan.

4.- SPKLaren 198. artikuluan ezarriarekin bat, emandako zerbitzuak kontratuan xedatuarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartzen diren datatik hurrengo 30 egun naturaleko epearen barnean prezioa ordaindu beharko du Administrazioak; eta berandutzaz jardunez gero, 30 egun naturaleko epe hori betetzen denetik aurrerako berandutza-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, artikulu honetan bertan aurreikusten den moduan.

5.- Era guztietara, kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen 30 eguneko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura erregistroan aurkeztu eta 30 egun igaro arte, eta baldin eta, bitartean, administrazioak ontzat eman ez badu eta ordaindu ez badu.

6.- Bestetik, emandako zerbitzuak kontratuan xedatuari egokitzen zaizkiola egiaztatzen duten dokumentuak onartu beharko ditu Administrazioak, ondasunen entrega efektiboaren ondotiko 30 egun naturalen barnean.

7.- Fakturek datu hauek izan behar dituzte:

- Erakunde kontratatzailearen identifikazioa.
- Kontratazio organoaren identifikazioa.
- Kontabilitate publikoetan eskumena duen organoaren identifikazioa.
- Kontratatutako prestazioaren jasotzailearen identifikazioa.

8.- Kontratuaren finantzaketan Foru Aldundiko bi departamentu baino gehiagok parte hartzen badute, edo beste erakunderen batek parte hartzen badu, kontratistari finantzaketan konprometitutako zati bakoitzeko ordainduko zaio, kontratuan parte hartzen duen proportzioan eta ezaugarrien taulako **6. atalak eta 10. atalak** jasotzen duten eran.

9.-SPKLaren 200. artikuluan xedatuarekin bat, eta bertan ezartzen diren baldintzetan, kontratistek, legez ezarritako bideren batetik, hirugarren pertsona bati laga ahal izango diote kontratuaren prezioa kobratzeko duten eskubidea. Lagapenak ondorioak izan ditzan eta Administrazioak lagapen-hartzaileari ordaintzeko agindua eman dezan, Administrazioari modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen horretarako akordioa.

## 45. KONTRATUA ETETEA

Kontratua etenez gero, SPKLaren 208. eta 313. artikuluetan eta HAKLEOren 103. artikuluan xedatua aplikatuko da. Aldi baterako etete, etete partzial, etete oso edo behin betiko etete kasuetan, etete horren akta egingo da.

## 46. OBRAREN HARRERA ETA BERME EPEA

### 46.1.- Harrera eta likidazioa

1.- Enpresa kontratista behartuta egongo da zerbitzua ematera kontratuan zehazten epearen barruan eta baldintza teknikoei eta administrazio klausulei jarraikiz.

2.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela esango da, xedea oso-osorik kontratuan ezarri bezala eta Administrazioaren adostasunarekin gauzatu duenean. Horretarako, kontratuaren arduradunak dokumentazioa edo prestazioa aztertuko du eta, ezaugarri teknikoak eta klausula administratiboak bete direla uste badu, zerbitzuen harrera egitea proposatuko du.

3.- Kontratuaren xede amaitzen denetik hasi eta hilabeteko epean, kontratuaren xedea hartuko da, egintza formalean.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira bereizita erabili daitezkeen kontratuaren zatien gainean.

4.- Kontratuaren exekuzioa segidako traktukoa bada, harrera kontratatutako prestazioa amaitzean edo kontratuaren epea amaitzean egingo da.

**46.2.- Berme epea**

1.- Berme haldia ezaugarri taulako 11. atalean zehazten dena izango da, edo, bestela, esleipendunak eskainitakoa.

2.- Epe horretan zehar egiaztatzen bada kontratazio organoari emandako edo haren eskura jarritako ondasunetan ezkutuko akats edo hutsen bat dagoela, kontratazio organoak eskubidea izango du horiek konpontzea erreklamatzeko.

3.- Berme eperik aurreikusi ez denean, jarduera soileko kontratuak epea betetzeagatik iraungiko dira, baina horrek ez du eragotziko Administrazioak eskumena izatea kontratistari erantzukizuna eskatzeko, ondoren hautematen den balizko edozein ez-betetzeagatik.

Kontratistak eskubidea izango du entzuna izateko kontratatutako prestazioa betetzearekin zerikusia duten iruzkinen gainean.

4.- Berme epea amaitzean administrazioak ez badu zuzenketarik, kontratistak ez du ardurarik izango emandako zerbitzuari dagokionez, obra proiektuak egiteko kontratuen berezitasunei eragin gabe.

**46.3.- BERMEAREN ITZULKETA**

Ezaugarri koadroko **11. atalean** adierazten den berme aldia igarota, Administrazioak eragozpenik adierazi ez badu, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat emango da zerbitzuari dagokionez, eta behin-betiko bermea itzuli edo ezereztu egingo da.

**47. KONTRATUA BALIOGABETZEA**

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLaren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Kontratua suntsiarazte hori HAKLEOren 109. artikuluan eta hurrengoetan zehazten den prozedurarekin bat izapidetuko da, suntsiarazte prozedura abiatzen datatik hasita 6 hilabeteko epean, eta SPKLaren 213. eta 313. artikuluetan aipatzen diren ondorioak izango ditu.

2.- Gainera, kontratazio organoak kontratua suntsitu ahal izango du kontratupeko lanerako ezarritako epe osoan ez-betetzerik gertatuz gero, edo, arrazoi bidez, epe partzialetan gertatu ez-betetzeak direla eta guztirako epea betetzea ezinezkoa izango dela iritziz gero, betiere kontratazio organoak ez badu erabakitzen SPKLaren 193.3 artikuluan xedatutako zehapenak jartzea.

3.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izan daitezke, halaber, honako hauek:

a) Kontratua gauzatu bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

   Arrazoi horrengatiko suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskaturik erabakiko da; soldatak ez ordaintze horrek eragiten dien langileak SPKLaren 130. artikuluarekin bat subrogazioa bidezkoa den langileak direnean eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 5etik gorakoak direnean, aldiz, kontratazio organoak ofizioz erabaki ahal izango du, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.

b) Baldintza-agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko oso ez-betetze larria gertatzea.

c) Kontratua bertan hasieran esleitutako langile kopuruarekin gauzatzea ezinezkoa izatea.

d) SPKLaren 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan jasotako arrazoiak, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten kontratuetarako.

4.- Era berean, suntsiarazpen arrazoia izango da, SPKLaren 211. artikuluaren babesean, ez betetzea 35.3 klausulan adierazitako obligazioak eta ezaugarrien taulako **22. atalean** kontratuko funtsezko betekizuntzat jasotako obligazioak.

5.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, hartako kideetako bat SPKL Legearen 211.1 a) eta b) artikuluko kasuan aurkitzen denean, administrazioak eskumena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratuzko betebeharrak betearazteko edo kontratua suntsitzea erabakitzeko.

6.- Haatik, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen direnean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsitzeko edo beste zehapen batzuk ezarriz harekin jarraitzeko.

**I ERANSKINA LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK**

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

1. **Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.**

**1.1. Baldintza administratiboak:**

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzea baimendutako ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikorako. Gaur egun, hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen Ordezkaria).
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen Ordezkaria).
- Nan-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea:
   a) Alta egoeran egotea eta indarreko ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
   b) Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntza-sisteman altan egotea.
   c) Bi operadore ekonomiko edo gehiagok parte hartzen badute elkarrekin formalki ABEE elkarketa eratzeko konpromisoarekin, ABEE elkarketaren konpromisoa aldi baterako gaikuntza-sisteman erregistraturik egon beharko da.

**1.2. Baldintza teknikoak:**

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke: http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

**1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945016298.**

2. **Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:**

Sistema erabili ahal izateko, atari honetara sartu beharko da: https://www6.euskadi.net/lizitazioa/

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, helbide honetan: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek **I. eranskin** honen **gehigarria**n horretarako zehaztutako helbide elektronikora.

Gipuzkoako Foru Aldundia | Diputación Foral de Gipuzkoa

## I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| 1. abizena, 2. abizena, Izena | NAN-IFZ |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

*Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.

**ADIERAZTEN DU(TE)**

Kontratua esleitzeko prozedurarekin lotutako jakinarazpen eta komunikazioetarako (izendapena eta espedientearen kodea):

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| Kontratuaren izena | Erreferentzia kodea |
|---|---|

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira:[1]

**JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK**

| Kalea, plaza, hiribidea… | ZK. | Oina | Eskua |
|---|---|---|---|
| Udalerria | PK | Probintzia | |
| Telefonoa | Mugikorra | | |

**Abisuetarako helbide elektronikoa:**

**Hartzailea:**

**Jakinarazpena edo komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza:** Euskara ☐ Gaztelania ☐

[1] *Hainbat enpresak esleipendun izanez gero formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

**II ERANSKINA KONTRATAZIORAKO EUROPAKO DOKUMENTU BAKARRA (DEUC) BETETZEKO JARRAIBIDEAK**

**1.- Lizitatzaileak EKAB aurkezteak balio du agiri honetan zehazten diren eta lizitazio prozeduran parte hartzeko behar diren AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA aurretiaz frogatzeko.**

Lizitatzaileek EKAB agiria aurkeztu beharko dute, hots, finantza-egoeraren, gaitasunen eta kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko enpresen egokitasunaren erantzukizunpeko adierazpena, SPKL Legearen 140. artikuluarekin eta 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Gauzatze Erregelamenduarekin (EB) bat etorriz, azken horrek ezartzen baitu kontratazioko europar dokumentu bakarrerako formulario normalizatua.

Kontratazio organoak aldez aurretik BAT zenbakidun Gutun-azalean aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko bere eskumenak erabili ahalko ditu, horretarako dagozkion egiaztagiriak aurkezteko eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluari jarraikiz.

Edozein kasutan, lizitatzaileak EKAB agiria aurkezteak berekin dakar konpromiso jakin bat, hots, kontratuaren esleipen-proposamena bere aldekoa bada, ordezkatzen dituen egiaztagiriak helaraztekoa 33.2. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

**2.- EKAB FORMULATEGI NORMALIZATUA**

EKABen formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es.

**3.- Argibideak:**

Dokumentuan deklaratzen diren betekizunak bete egin beharko dira, edozein kasutan, lizitazio-epearen azken egunez, kontratatzeko debekuak izan ezik, horiek mantendu egin beharko baitira gutxienez kontratua formalizatu arte, eta Administrazioak egiaztapenak egin ditzake prozedurako edozein unetan.

Adierazpena horretarako nahiko ahal duen pertsonak sinatuta egon behar da.

Kontratuaren gaia sortatan zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.

Bitartekoak atxikitzeko eskakizuna lizitatzailearen kanpoko bitartekoekin betetzen bada, lizitatzaile bakoitzeko eta kontratua gauzatzeko atxikitako bitarteko bakoitzeko EKAB agiri bat aurkeztu beharko da.

Enpresa batzuk aldi baterako elkartea eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zenbakiko artxiboan lizitatzaileen adierazpena jaso beharko da, baldintza-agiri honetako V. eranskineko ereduarekin bat, enpresa-talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta agertzen diren enpresak ez daude behartuta dagoeneko eguneratuta agertzen diren datuak helaraztera, betiere, EKAB agiriaren formulario normalizatuan inguruabar hori adierazten bada. Edozein kasutan, lizitatzaileak ziurtatu behar du zeintzuk diren egiaz inskribatuta eta eguneratuta agertzen diren datuak ez zeintzuk ez. Eskatutako datu edo informazioren bat aipatutako Lizitatzaileen Erregistroan agertzen ez denean edo bertan eguneratuta ez dagoenean, formularioa betez helarazi beharko da.

EKAB formulario normalizatuari buruz, lizitatzaileek dokumentu hauek kontsultatu ahalko dituzte:

- Web-orrian eskuragarri dagoen 2016/7 Erregelamendua:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

**4.- Prozedura honetarako formulario berezia jasotzen duen XML fitxategia kontratatzailearen profilean dago.**

**III ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, Izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, Izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, Izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

*** Eredua egokitu behar da, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

**Kontratuaren izena** **Erreferentzia kodea**

**ADIERAZTEN DUTE**

**1.** Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren esleipendun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

| Enpresaren izena | % |
|---|---|
| | |

| | |
|---|---|
| | |
| | |

**2.** Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |

**Tokia eta data:**

| | |
|---|---|
| *Enpresaren izena* | *Sinatu:* |
| *Enpresaren izena* | *Sinatu:* |
| *Enpresaren izena* | *Sinatu:* |

**IV ERANSKINA BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

**1. abizena, 2. abizena, Izena** **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

**Kontratuaren izena** **Erreferentzia kodea**

## ADIERAZTEN DU

Aipatutako kontratua gauzatzeko hurrengo bitartekoak atxikitzeko konpromisoa hartzen duela:

☐ **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

Teknikarien taldean egongo dira jarrian zehazten diren lanpostuak, gutxienez

| GIZA BALIABIDEAK | PROFILA |
|---|---|
| Laguntza teknikoko lantaldearen zuzendaritza<br><br>Bide, Ubide eta Kanaletako goi mailako ingeniaria, edo Bide, Ubide eta Kanaletako Unibertsitate Master baliokidea duena Europako Goi mailako Hezkuntza Esparruan, errepideetako tunelen obren zuzendaritzan esperientzia duena. | 7 urteko gutxieneko esperientzia, errepideetako edo trenbideetako azpiegitura linealen kontrolean edo exekuzio obretan<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Adierazi titulazioa |
| Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea<br><br>Pertsona tituluduna Herrilanetako Ingeniaritza Teknikoan; Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan (edo goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua indarrean sartu aurretik igorritako goi-mailako titulazio baliokideak)<br>Goi mailako masterra Laneko Arriskuen Prebentzioan | 5 urteko esperientzia<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Adierazi titulazioa |
| Topografiako lantaldea: Topografiako ingeniari teknikoa (edo goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua indarrean sartu aurretik igorritako goi-mailako titulazio baliokideak) eta laguntzaile bat. | 5 urteko gutxieneko esperientzia, errepideetako edo trenbideetako azpiegitura linealen kontrolean edo exekuzio obretan |

| | |
|---|---|
| | Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Adierazi titulazioa |
| Geologian eta geoteknian arduraduna<br><br>Bide, Ubide eta Portuetako goi mailako teknikaria, edo unibertsitate masterra Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan, baliokidea dena Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, errepideetako tuneletako obra zuzendaritzan esperientziaduna, edo Geologian tituluduna (edo goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua indarrean sartu aurretik igorritako goi-mailako titulazio baliokideak). | 7 urteko gutxieneko esperientzia, errepideetako edo trenbideetako azpiegitura linealen kontrolean edo exekuzio obretan<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Adierazi titulazioa |
| Ingurumeneko arduraduna<br><br>Biologian tituluduna (edo unibertsitate titulu baliokidea) | 5 urteko esperientzia<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br>Adierazi titulazioa |
| Exekuzio baldintza bereziak betetzeko arduraduna<br>Lan harremanetako graduatua (edo unibertsitate titulu baliokidea) | 5 urteko esperientzia<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Adierazi titulazioa |
| Obraren zaintza dokumentatua<br>Obra zaintzailea, FP-2 edo antzerako formazioarekin | 5 urteko esperientzia<br><br>Euskara bai ☐ ez ☐<br><br>Adierazi titulazioa |
| Administrari laguntzailea | 3 urteko esperientzia administrari laguntzaile lanetan.<br>B2 euskara maila |
| Errepide, Ubide eta Portuetako ingeniaria edo geologoa | Geoteknian aholkularitza aditua, hondeaketetan, lubetetan, lur-erauzketetan eta tuneletan |
| **BITARTEKO MATERIALAK** | **DESKRIPZIOA** |
| Hiru ibilgailu | Hiru ibilgailu, utilitario motakoa, obra zuzendaritzak funtzioak betetzearren nahikoa mugikortasuna izan dezan. |
| Bulego Teknikoa. | Ezaugarri teknikoen agiriko 2. eranskinaren arabera |

1) Balioetsi daitezkeen postuak; lan taldearen esperientzia (0,5 puntu agirian eskatzen direnak baino esperientziako urte gehigarri bakoitzeko, gehienez 2,5 puntu postu bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu guztira).

2) Balioetsi daitezkeen postuak: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, emakumeak lanpostu horietan jartzea (1 puntu emakume batek betetzen duen postu bakoitzeko, gehienez 4 puntu).

(3) Zazpi postu hauetatik, gutxienez batek euskarazko 3HE maila (Euskal Administrazioa), C1 (Erreferentziazko Europako Markoa) edo EGA maila egiaztatu beharko du.

Gipuzkoako Foru Aldundia | Diputación Foral de Gipuzkoa

☐ **Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:**

**V ERANSKINA ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, Izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

**ADIERAZTEN DU**

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako kasuren batean sartzen dela.
☐ EZ DAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du kontratuaren esleipenean parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.

☐ Kontratuaren esleipenean parte hartzen duela talde bereko enpresekin edo banakako proposamenak aurkezturik Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluak ezartzen dituen aukera kasuetan sartuta daudenekin; enpresak hauek dira:

| IFZ/IFK | Sozietate izena |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua:

"Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

**VI ERANSKINA ADIERAZPEN EREDUA, KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA BETETZEARI BURUZKOA**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, Izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

**ADIERAZTEN DU**

**Lehenengo:** Konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Foru Administrazioaren KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATZEKO JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN ESPARRUA, Foru Gobernuaren Kontseiluak 5 irailaren 2017 saioan onartua eta honako helbide elektroniko honetan lizitatzaileen eskura dagoena, goitik behera betetzeko:

http://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/923643/Kontratazio_kodea-es.pdf

**Bigarrenik:** Ez du interes gatazkarik ez inolako harreman baliokiderik beste lizitatzaileekiko nahiz proiektuan interesa duten beste alderdiekiko. Enpresak bere gain hartzen du kontratua betetzeko epean zehar egoera hori sortzen bada horren berri emateko botere esleitzaileari.

**VII ERANSKINA KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN DOKUMENTUEN ETA DATUEN AITORPEN OSAGARRIAREN EREDUA**

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, Izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

**ADIERAZTEN DU**

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzial jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako dokumentu, informazio eta alderdiak: [2]

1.-
2.-
3.-
…………………….……

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

1.-
2.-
3.-
…………………….……

[2] Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzial. Enpresak ez badu berariaz konfidentzial jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzial jo ez den daturik konfidentzial jotzea.

VIII ERANSKINA ABAL EREDUA

**KREDITU ENTITATEAREN EDO ELKAR BERMATZEKO SOZIETATEAREN DATUAK**

**Izen soziala** **IFZ**

**Jakinarazpen eta eskakizunetarako helbidea:**

**Kalea, plaza, hiribidea…** **ZK.** **Solairua** **Eskua**

**Udalerria** **P.K.** **Probintzia**

**AHALDUNA(K)**

**Izen-abizenak** **IFZ**

Goran adierazitako erakundeak, eta bere izenean eta aipatutako pertsona(k) ordezkatuz, egintza honetan obligaziodun egiteko botere nahikoarekin, dokumentuaren atzealdean aipatutako botere-askiespenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean eratzen da honakoaren abal-emaile solidario modura:

**ABALATUTAKO PERTSONA EDO ERAKUNDEAREN DATUAK**

**Izen-abizena / Sozietate-izena** **IFK / IFZ**

**Berme mota**

☐ **Behin-behinekoa (SPKL, 106. art.)**

☐ **Behin betikoa (SPKL, 107.)**

**Kontratuaren xedea edo abalatuak beregain hartutako betebeharra**

**Kontratazio Organoa**

**Abalaren zenbatekoa (hizkiz eta zenbakiz)**

Entitate abal-emaileak bere erantzukizunez aitortzen du betetzen dituela Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluak aurreikusten dituen baldintzak. Abal hau solidarioki ematen da obligaziodun nagusiarekiko, berariaz uko eginez eskusio onurari, eta kontratazio organoak egin lehen errekerimenduaz ordaintzeko konpromisoaz, Herri Administrazioen kontratuei buruzko legedian, hori garatzeko arauetan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 4/2007 27 Foru Arauan aurreikusten diren baldintzetan betiere.

Abal hau indarrean egongo da, harik eta kontratazio organoak edo horren izenean jardunez legez horretarako gai denak, deuseztatzeko edo itzultzeko baimena ematen duen arte, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean eta legedi osagarrian ezarritakoarekin bat.

**Tokia eta data:**

**Erakundearen helbidea**

**(ahalordeen sinadura)**

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

IX ERANSKINA ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

**IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| **1. abizena, 2. abizena, Izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

**KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK**

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

Jakinda zeintzuk diren kontratazio espedienteari dagokionez eskatzen diren baldintzak eta beharkizunak, proposatzen d(it)u honako prezio hau(ek) eta, hala badagokio, formula bidez ebaluagarriak diren gainerako elementuen eskaintzak:

**1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA**

**2.- FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO BESTE ELEMENTU BATZUK**

**Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboaren adierazpena:**

**Tokia eta data:**

| *Enpresaren izena* | |
|---|---|
| | *Sinatu:* |

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

**X ERANSKINA ESLEIPEN IRIZPIDEEN EBALUAZIO SISTEMAREN PROPOSAMENA ETA IZAERA SOZIALEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Kontratista esleipen irizpideen eragina ebaluatzera behartzen da, bere kasuan, bere proposamenean konpromisoa har dezan, eta exekuzioaren baldintza sozial bereziak betetzeko ebaluazioen aplikazioa, eredu honi jarraituz:

............................................................ jaunak/andreak –zeinaren NA/AIZ: ................................–, bere izenean edo ............................ enpresaren ordezkaritzan –, zeinaren IFK:…………………, gisa………………….

ADIERAZTEN DU enpresa hori, ...... kontratuaren exekuzioan:

1. Kontratua gauzatzeko …. emakume jardun dira, langile guztien % …. Inguruan, emakumeen batez besteko portzentajea % …… izanik Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (INE eta Eustat) arabera, lizitazioak ezarritako datarako.
2. Enpresan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz diagnostiko bat egin du, edo eta laguntzaz baliatzen diren pertsonez, zeina diseinatu eta aplikatu da … ( zenbakia) berdintasunerako ekintzak, … pertsonei mesede egin diena.
3. Berdintasunaren inguruan …. formakuntza ordu diseinatu eta eskaini ditu, non …. pertsonek parte hartu duten.
4. Enpresako langile bat izendatu da edo teknikari bat kontratatu da berdintasuneko arduradun gisa.
5. Protokolo bat edo neurri zehatz batzuk onetsi dira lanean sexu erasoak eta sexua dela-eta egiten diren erasoak saihesteko eta horiei aurre egiteko, zeintzuen diseinuan …. pertsonek parte hartu duten eta …. pertsonen kalterako edo onurako diren.
6. Protokolo zehatz bat onetsi da enpresan hizkera ez-sexista erabiltzeko. Hori diseinatzeko … pertsonek hartu dute parte eta …… pertsonei jakinarazi zaie.
7. Kontziliazio neurriak diseinatu eta aplikatu dira. Neurri horien onuradunak …. pertsona izan dira, horietatik …. emakumeak. Hauek izan dira neurriak (adierazi dagokiona: emakumeen eta gizonen ardura partekatua sustatzeko neurriak; bereziki, baliabide propio, pribatu edo sozio-komunitarioak izatea adingabeei eta mendekoei arreta emateko: zerbitzu txekeak, jangelak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak, hobekuntzak lan-jardunaldian, eszedentziak, lizentziak edo baimenak, ordutegi malgua, telelana, edo zerbitzuak moldatzea edo birzuzentzea)
8. Enpresa hitzarmen bat aplikatu da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera bideratutako neurriak jasotzen dituena, non, horietatik …. (adierazi kopurua) neurri hartu diren, eta horiek aplikatzea ….. pertsonen onurarako izan den.

9. Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko ziurtagiria edo egiaztagiria dago, eta kontratuaren exekuzioari aplikatzen zaizkion akzioak on egin die …. pertsonari.

10. 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan, errespetatu eta bete egin da % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko kuota % 2 izatea, era horretan, enpresaren langile kopurua …. pertsona bada, bertan % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak …. Izango da.

11. Langile guztientzat errespetatu da, …. pertsonaz osatutakoa indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa sektoriala eta lurraldekoa zehatz-mehatz bete dadin.

12. Kontratua gauzatzean hizkuntza ez sexista erabili da, saihestu du emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu du, balio hauek izanik: berdintasuna, presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala. Egindako materialak guztira (iragarkiak, kartelak, liburuxkak, irudiak, dokumentuak eta abar) irizpide horiekin kalkulatua, ..... (zenbakia jarri) da, eta kalkulatzen den irismena ...... (zenbakia jarri) pertsonenganakoa izango dela.